



ARGIA

ARRAZAKERIA ETA ESKUIN MUTURRA

Nork sortzen du inseguritatea?



**Petrokimiken
gerra sekretua,
plastikoarekin
aberasten jarraitzeko**

12 | NET HURBIL



**"Txikik amari:
'Euskaldun guztiak
zeure seme
dituzu, ama!'"**

16 | MAGDA ORANICH



**"Pelikulan islatu ditugu
Bilboko Aste Nagusiaren
arima eta autogestioa"**

34 | SARA FANTOVA

2.929 | 2025 / 09 / 07 | 4 €



9 778402 139093

Erosten duzun produktu bakoitzarekin,
ekarpen ekonomikoa egiten diozu
Mbolo Moye Doole elkarteari.
Batez ere Senegaldik etorritako
migratzailez osatutako Bilboko
kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

Kamiseta **17 €**

Amul been nit ku legalul

inor

ez

da

ilegalak

ARGIA eta MBOLO MOYE DOOLE ELKARTEA

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

 **ARGIA**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRATZAILEA: SHUKARE OTERO

Iritziak

- 21 | JESÚS RODRÍGUEZ
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | MIKEL BASABE
- 23 | CASTILLO SUAREZ
- 24 | LAURA PENAGOS

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



46 | AIXA DE LA CRUZ

June Fernandezek elkarriketatu du idazle eta itzultzailea. Maitasun harremanak, hutsune existentziala eta espiritualtasuna ditu hizpide bere azken eleberrian, eta gai horiek jorratu dituzte, besteak beste, elkarriketan. 2020an Euskadi Literatura Saria irabazi izanak ekonomikoki bere bizitzan izan zuen eragina azaldu du, baita euskararekin duen harremana ere.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Plastikoaren birziklapenaren iruzurra: industria petrokimikoaren gerrillariak Genevan

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | M. ORANICH | SOLAGRAN

“Ezin ahaztu dut Txiki azkenekoz besarkatu nuen momentu hura”

Miel A. Elustondo

26 | GIZARTEA | ARRAZAKERIA

Eskuin muturrerantz arrastatzen gaituen korrante zabala

Zigor Olabarria

34 | GIZARTEA | SARA FANTOVA

“Ez dugu film feminista edo bolleroa egin nahi izan, baina gure esperientzia hori da eta islatu dugu”

Aitor Aspuru


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maialen Arana

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500064


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Errepublika kartzelerokoak

Guatemala da. baina izan zitekeen El Salvador edo Honduras. Erdialdeko Amerikako kaleak husten ari dira, segurtasunaren eta herrialdearen garapenaren izenean, eta kartzelak bete. Munduan, proportzioan, preso gehien dituzten herrialdeen artean daude. Baina ziegetan ez daude diktadoreak, narkoak, epaile ustelak, botereaz abusatzen duten polizia edo militarrek. Ziegetan maila baxuenetako kideak daude, pandilla kide izan ala ez, estatu hautsi baten arrakaletan galduta.

 Guatemalako Gaviotaseko hainbat preso bakartze ziegetan sartzeko zain, pasa den astean izandako "matxinada" baten ondorioz. **M. CASTILLO / AP**

 **MARIA ORTEGA**



Konfiantza mozioa eta Frantziako Gobernuaren aurkako blokeoa

ENKO IMAZ GALPARSORO | JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Datozen lau urteetarako aurrekontuak aurkeztu zituen François Bayrou Frantziako lehen ministroak uztailean, eta zeresana eman zuten: zor publikoa murrizteko asmoz, datozen lau urteetan 43.800 milioi euro murriztu nahi ditu herrialdeko aurrekontuak. Hori gauzatzeko, Frantziako lehen ministroak aurkeztutako planak barne hartuko luke, besteak beste, pentsioak izoztea, lan publikoak eta osasuneko gastua murriztea, baita bi jai egun nazional kentzea ere. Horren aurrean, Marine Le Pen buru duen RN Batasun Nazionala eskuin muturreko alderdiak iragarri zuen zentsura mozio bat aurkeztuko zuela.

Horrez gain, Bayrouk iragarritako neurrien aurka, irailaren 10erako zenbait sindikatuk eta alderdik protestak deitu dituzte. Oposizioari eta kaleko deialdiei aurrea hartuz, ordea, Frantziako lehen ministroak abuztuaren 25ean jakinarazi du irailaren 8an konfiantza mozio bati aurre egingo diola: "Gehiengoa lortzen badugu, gobernu berretsiko dute; bestela, erori egingo da". Frantziako Asanblea Nazionala osatzen duten alderdiek handik ordu batzuetara adierazitakoaren arabera, ordea, ez dirudi Bayrouk babes handirik jasoko duenik: izan ere, LFI Frantzia Intsumisoak, Frantziako Alderdi Komunistak, ekologistek, Alderdi Sozialistak eta RNk adierazi dute aurka bozkatuko dutela.

Bost alderdi horiek Asanblea Nazionalako 577 eserlekuetatik 315 dituzte, lehen ministroak mozioa gainditzea oztopatuko lukeena: nahikoa du aldeko boto gehiago jasotzea aurkakoak baino. Erreakzioez jakitun, Bayrouk geroago jakinarazi du aurrekontuen planeko neurriak eztabaidatu egin daitezkeela: "Neurriak ez dira inoiz inposatzen. Proposatu egiten dira, eta horien inguruan eztabaidatu". Horregatik, egunotan sindikatuarekin, patronalekin eta Asanblea Nazionalan diputatuek dituzten alderdiekin biltzen ari da.

GUZTIA BLOKEATZEKO DEIA

Bien bitartean, sare sozialetako mezuak, herritarren batzarrak zein kartelak, irailaren 10ean "guztia blokeatzeko" deia za-



CONTRE ATTAQUE

Dinamikari 2018ko Jaka Horien antza hartzen diote anitzek. Alta, garaian ez bezala, badirudi alderdi politikoak eta sindikatuak ere badabiltzala mobilizazio egun horri begira

balduz eta indarra hartuz doa Frantziako Estatuan zein Ipar Euskal Herrian. Dinamikari 2018ko Jaka Horien antza hartzen diote anitzek eta garaiko jaka horidun aktibista ezagun batzuk deiarekin bat egin izanak sendotzen du lotura hori. Alta, garaian ez bezala, badirudi alderdi politikoak eta sindikatuak ere badabiltzala mobilizazio egun horri begira eta hori bada Jaka Horiakiko alde handia. Funtsean, eztabaida ere piztu du antolaketa dabilatzan artean: komeni da alderdi eta sindikatuen presentzia ala onura baino kalte gehiago egingen dio herri mugimenduari? Eztabaida hori hor bada ere, aitzina doa irailaren 10ari begira dagoen beroketa fasea.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, badabiltza herritar batzuk giroa berotu nahian eta eragile sindikal batzuek ere bat egin dute dagoeneko deiarekin. Tartean dago

LAB: "Mugimendu honek adierazten duen haserre soziala zilegia da, eta konpartitzen dugu. Izan ere, Bayrouk iragarritako austeritate plana langileen bizitza prekariatzen ari diren azken urteetako politika antisozialen jarraipenean kokatzen da".

URRIAREN 9AN GREBA

Urriaren 9rako grebarako deia luzatua dute langile sindikatuak eta bi deiak batzen ditu plazaraturiko LABen agiriak: "Dena blokeatzea ez da erabakitzen, antolatzen baizik. Greba egitea ere dena blokeatzea da. Bide horretatik blokeatu nahi duten langileei dei egiten diegu gurekin harremanetan jar daitezen". ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Progre



IMANOL EPELDE
27zapata.eus

Gizonezkoak ziren gehienak Sanferminetako entzierroetan; gizonezkoak ia denak Frantzia-ko Tourrean; gizonek hartu dute udako musika jaialdietako oholtza eta *backstage*-a; gizonezkoak dira nagusi bertso-plazetan; gizonezkoak dira Donald Trump, Vladimir Putin eta Benjamin Netanyahu ere. Eta hara, hemendik aurrera, gizon bat arituko da ARGIAko plaza honetan ere idazten: gizon zuri heterosexual bat, 50 urteren bueltakoa, sistemak jaten ematen dion horietakoa. Oraindik ere mundua bitan banatuta ikusten duena: mikrofona eta isiltasuna, merkatuaren logika eta komunitatearena, zentroa eta periferia. Eta hori gure aitak aspaldi eman zidala abisu: "Hemen dena ez duk zuri ala beltz, dena duk kafesne koloreko". Nik ez dakit zenbat dudan kafetik, zenbat esnetik. Areago, kafesne deskafeinatua olo esne epelarekin eskatzen hasi nintzenetik. Azukrerik gabe, noski.

Eta bai, plaza honetan arituko naiz ni ere, progre, autokritiko. Zeri buruz baino nondik idazten asmatu nahian: Gizon zuri, heterosexual, patrikabete euskaldun bat munduari kopla berriak jartzen, euskaratik. Euskarak eman didalako txikitik eragiteko sena; gal-tzailearen bandoan egotearen sentsazio iraunkorra; mundu eta istorio inposibleak asmatzeko grina; gutxi daukatenen aldamenen egoteko nahia, eta mesfidatiak izatea boterearekin. Badakigu ametsik xaloenek mugitzen dutela mundua, oraindik ere posible eta beharrezkoa dela aldaketa, une zailenetan ere beti baitago aterabideren bat.

ARGIAk ere txikitik eragiten du. Hemen arituko naiz ni ere ipurtargi lanetan, ezinezko bizitzak irudikatzen eta marrazten, mikrofonorik gabekoei entzuten ikasten, mikrofotonik hizketan berriz ere trebatzen. Nire gizontasunagatik inori barkamenik eskatu gabe, baina gizonezkook, sarritan, mundua salbatzeko daukagun obsesiotik askatu nahian. ●



EKONOMIA

Zarataren erdian... noranzkoak



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI


Euria ari du. Ekaitza. Egun beroegi baten ondorengo bustialdia. Eta temperatura jaitsiera bedeinkatua. Ez dakit Galizia aldean euririk egin duen azken aldian, ez dakit suteak itzalita diren jada, eta etxetik irten behar izan zutenak itzuli ahal izan diren. Komunikabideetan zarata besterik ez, erantzukizunei iskin egiteko iskanbila. Arduragabekeria eta zentzugabekeria gehiegi, eta politika serioak faltan.

Datu eta informazio gordina jasotzeko aukera izan dugu, tarteka. Telebistako mahai-inguru txatxu batean ere entzun ahal izan dugu 8 hilabete langabezia pasatzen dituzten suhiltzaile eta basozainak ditugula. Eta, aldi berean, uda garaian gertatzen diren suteak ez gertatzeko neurriak beste 8 hilabeteetan hartu behar direla. Jakin dugu ere datuak ematerako orduan hainbat sute ezkutatu egin dituztela gobernuek, eta Espainiako Estatutik helarazitako azpiegiturak (ere) ez dituztela erabili; pertsonal faltagatik-edo.

Betaurreko berdeak jarrita, baina, berri on batzuk ere iritsi zaizkigu abuztuan. Esaterako, hainbat proiektu eoliko atzera bota dituzte, ingurumenean eta faunan izango luketen eragin negatiboegiengatik. Negatiboegiak diot, azpiegitura eta kontsumo energetikoarekin erlazionatutako guztiak duelako alde negatiboa. Kontsumoa gutxitzea da izan dezakegun berri on bakarrenetakoa, baina ez soilik pobrezia (energetikoa) bizi duten horientz.

Baina nola heldu trantsizio energetikoari? Nola bilatu eragile komunitario, kooperatibo, pribatu eta publikoen arteko elkarlana eta adostasuna? Akaso Deba goieneko "Argitzen" prozesuak lagunduko digu bide horretan. Kontsumo bereziki altua duen eskualdea izanik, azpiegitura energetiko berriei buruz hitz egiteko bakarrik ez, trantsizioaren noranzkoa bera adosteko saiakera hau aurrerapauso handia eta eredugarria izan daiteke. Ea. ●

ANALISIA



GUKA

2025: Egiaren Ministerioa

XABIER LETONA BITERI

Gatazka politiko bat egon da azken 60 urteetan Euskal Herrian, eta horrek izan du bere bertsio biolentoa, ETak bideratu duena, zeinari Espainiako Estatuak errepresioz eta estatu-terrorismoz erantzun dion. Sei hamarkadetan, ordea, biolentzia horiek ez dira berdin ikusi izan euskal gizartean. Frankismoan, herritar asko ez zegoen ados ETarekin, baina hala ere, horietako asko pozten ziren Carrero Blancoren heriotzarekin, eta ez zeuden ETaren aurkako manifestazioak kaleetan.

Frankismoaren amaierak eta Trantsizio Demokratikoaren hasierak argi markatu zuten frankismoaren aurreko ETA eta ondorengoa. ETApk-*k* utzi zion borroka armatuari, ETaren aurkako manifestazioak hasi ziren kaleetan eta, urteekin, ETak indarra galdu zuen eta estatuak lortu zuen ezker abertzalea ilegalizazioan zokoratzea... Frankistentzat ETaren jardura beti izan zen terrorismoa. Antifrankista askorentzat "komeni ez zen borroka moldea"; eta beste askorentzat, etakideak askatasunaren aldeko borrokalariak ziren.

Kontakizun historiko oso-oso orokor hori aski onartua izan liteke euskal gizartean. Ikuspegi historikotik, Frankismoko ETaren fenomenoak ETApk-*k* Madrilgo Rolando kafetegian egindako atentatu hilgarritik neurtu nahi izatea, Gogorako Institutuko Alberto Alonsok egin duen moduan, manipulazio historiko handia da. Iñigo Urkullu lehendakaria atera behar izatea esatera hori baino askoz finago ibili behar dela biktimekin oso adierazgarria da. Ezin baitira biktimak zatitu, gerritik behera biktima eta handik gora terrorista. Biktima da, eta kito. Eta biktima batek merezi du aitortza, justizia eta erreparazioa.

Aitortzaren barruan sartzen da biktimak gogoratzea, eta herritarrek ere hauta dezakete nola oroitu Txiki eta Otaegi, Gogorak edo Zarauzko Udalak nola egin behar duten esan gabe. Zarauzko Santa Barbarako paretako olanak esango balu "Txiki eta Otaegi. 1975-2025. Gora ETA!", euskal gizartearen gehiengoak gaur egun ez luke onartuko. Baina "Gora ETarik" ez zegoen olanean, eta beraz, horrek gertaera historikoa bakarrik azpimarratzen du, interpretazio eta balorazio historiko guztiei zabalik.

Fusilatu eta mende erdi geroago, Txiki eta Otaegi oraindik sinbolo handiak dira Euskal Herrian, baina hori ez da hainbaten gustuko. Bi etakide sinbolo? Nola irensten da hori? Ez da gustuko haien figurek irakurketa historiko pluralak izatea, borrokalari eta biktima moduan baino terrorista moduan ikusarazi nahi dira. Testuinguru horretan kokatu behar dira Alonsoren berbak.

George Orwellen 1984 liburuan, Egiaren Ministerioak finkatzen du nola irakurri behar den iragana, eta hiztegi berri bat ere lantzen du horretarako: inon ez bada gertaera baten erreferentziarik, lor liteke hura oroimenetik ezabatzea. Ministerioaren goiburu nagusietako batek hala dio: "Iragana kontrolatzen duenak etorkizuna kontrolatzen du. Oraina kontrolatzen duenak iragana kontrolatzen du". ●

138.495

sinadura jaso ditu Gutxieneko Soldata Propioaren aldeko lege ekimenak EAEn. Sinadurak Eusko Legebiltzarrean erregistratu dituzte ELA, LAB, ESK, STEILAS, HIRU eta ETXALDE sindikatuak: "Hainbeste sinadura hiru hilabete eskasetan, erabateko arrakasta da".

639

'minipisu' ari dira eraikitzen Barakaldon (24 metro koadrokoak), BEC erakustazokaren aldamenean. Udal ordenantzak aginduta, hotel erabilera eman behar zaio espazio horri, baina "alokairu malgua" dela dio Be Casa-k, hilean 1.000 eurogatik eskaintzen ditu.

110.000

milioi

euroko kapitalizazioa gainditu du Iberdrolak bere historian lehen aldiz. Europako energia-enpresarik handiena da jada, eta bi handienetako bat munduan.

"Lotura sozialaren, kultura eskubideen eta herri sormen dinamikaren bektore den euskal kultur ekosistema oso bat ahultzea da"

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Frantziako Estatuak "arriskuan" jarriko du EKE, dirulaguntzak 30.000 euro murriztuta (iaz baino %15 gutxiago). Erakundeak adierazi du erabaki horrek "ondorio latzak" izango lituzkeela. Irailaren 13rako mobilizazio artistikoa iragarri dute.

2025-08-27



"LARRITZEKO DA GARRAIO SEKTOREAREN PREKARIZAZIO MAILA. AURTEN GUTXIENEZ 15 GARRAIOLARI HIL DIRA"

LAB SINDIKATUA

Iruñeko garraiolaria bat hil da abuztuaren 27an Erriberrin, lanerako zerabilen kamioia bidetik atera eta irauli ostean.

"Estatus instituzional berri baten eta euskararen koofizialtasunaren aldeko dinamika politiko sendo baterako baldintzak betetzen dira"

XABI LARRALDE

EH Baiko kudeatzaile instituzionala

IFOP institutuak eginiko ikerketaren arabera, Ipar Euskal Herriko %71k hizkuntzaren koofizialtasuna nahi du, eta %66k eskoletan irakastea derrigorrezkoa izatea. Horrez gain, Ipar Euskal Herriko eta Frantziako Estatuko herritarrek lurraldeek botere nahikorik ez daukatela pentsatzen dute.

2025-08-26



TEKNOLOGIA

Turistak eta aktibistak



DIANA FRANCO

Oporretan nengoela, gorputza eta burua gozatzera bideratu ditut. Turista bilakatu naiz, eremu digitalean zenbait trebezia dugunontzat, oso erraza. Motxila hartuta familiarekin handik hona ibili naiz, poltsikoan dibisa asko barik, mapa fisiko barik, plan asko barik... aplikazio ugari instalatuta ordea: mapak, erreserba plataformak, tokiko agenda kulturalak, hegaldi bilatzaileak, autobus aplikazioak, dibisa bihurtzaileak, itzultzaileak...

Digitalizazioaren onurak darabiltzan turista izateko, nire ustez, ezin dira honakoak falta: ordainketa elektronikorako NFC teknologia eta munduan kokatzeko geolokalizazioa dituen mugikorra, internet munduan zehar baliatzeko SIM txartela, eta elektrizitatea baliatzeko zenbait karga ziurtatuko dituen kanpo bateria.

Digitalizazioan oinarrituriko turismo mota honetan, turistok dena erraz nahi dugu eta horretarako plataformak ezinbestekoak dira: hornitzaileei (hegazkin konpainiak, ostalariek, jatetxeak...) okupazio maila handiagoak lortzen laguntzen diete eta turistoi prezioak eta zerbitzuak modu erraz eta azkarragoan alderatzeko aukera eskaintzen dizkigute. Baina ez da dena hain gardena, posizionatzeko algoritmia eta adimen artifiziala hor ere ez dira falta, plataformen boterea handitzen doazen merkatu-dinamika berriak sortuz.

Oporretatik bueltan, erosotasunarekin zerikusirik ez duen bestelako bidaia bat abiatu duten pertsonen berri izan dugu: Global Sumud Flotillako akitibistena. Sumud hitza arabiarrak da, pertseberantzia gisa itzuli daiteke. Palestinako testuinguruan, hitz hori erdiguneko kontzeptu kultural, ideologiko eta politikoa da, Israelen okupazio zapaltzailearen aurrean lurrari errotutako erresistentzia irudikatzen duena. Erabili dituzten plataformak bestelakoak dira, komunikazioari lotuak (sare sozial hegemonikoak, batez ere). Algoritmiak eta adimen artifizialek euren ahotsak ez itotzeko komunikazio nodo banatuak sortu dituzte mundu osoan zehar. ●

NAZIOARTEA



GETTY IMAGES

Global Sumud, Palestinaren aldeko ontzidia

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Abuztuaren 31n irten da Bartzelonako portutik Palestinaren aldeko inoizko ontzidirik handiena: 30 itsasontzi inguru eta 300 bat ekintzaile, Gaza helburu, blokeoa apurtu eta genozidioa salatzeke. Bidean ontzi gehiago batuko zaizkie Mediterraneoko hainbat portutatik. Gauean lehorrera itzuli ziren eguraldi txarra medio, baina hurrengo egunean irten ziren berriz ere.

Global Sumud Flotilla Euskal Herria mugimendutik lau ordezkari igo dira ontzietara –beren izen-abizenak ez ematea erabaki dute, “arreta Gazan jarrita egon behar duelako”–, gehiago ere baziren prest, baina ez zegoen tokirik guztientzat. Arazo orokorra izan da: Bartzelonatik orotara 47 nazionalitateko 300 aktibista inguru abiatu dira, baina 2.000 pertsonak eman dute izena.

Aurreikuspenen arabera, hoguei egun geroago helduko dira ontziak Gazara. Bidean, Mediterraneoko beste hainbat herrialdetatik itsasoratutako dozenaka ontzi gehiago Flotillara batzen joango dira. Hedabidetan argitaratutakoaren arabera, uste da Italia, Grezia eta Tunizekoak izango direla, baina antolakuntzak ez du zehaztu.

Hainbat ontzidi antolatu dira azken urte eta hilabeteetan Gazan laguntza sartu, blokeoa apurtu eta genozidioa

salatzeko helburuz, baina ontzi bakarrak edo gutxi batzuek osatutakoak izan dira. Israelek denen aurka egin du, ontziak itsasoratu aurretik sabotatuta, presio diplomatiko bidez beste herrialde batzuen debekuak behartuta, edo ontziei nazioarteko uretan eraso egin eta ekintzaileak kolpatu edota atxilotuta. Lehenbiziko ontzidia 2010ean antolatu zuten: Israelek gauze egin zion eraso Turkiatik irten zen ontziari, eta bederatzi pertsona hil zituzten militar sionistek.

“NAZIOARTEKO LEGEDIA BETETZEN ARI GARA”

“Badakigu nola jokatu duen Israelek orain arte”, azaldu dio euskal ordezkarietako batek ARGIAri, “baina inoiz ez dute horrenbeste ontzik eta militantez parte hartu flotillan, eta inoiz ez du lortu oraingoa honen oihartzun komunikatiboa”. Baikor azaldu da: “Gure helburua Gazara heldu eta blokeoa apurtzea da. Nazioarteko legedia betetzen ari gara, gure aurka egiten badu Israel izango da legedi hori urratzen duena”. Aurreikustekoak diren zailtasunen aurrean, Global Sumud Flotillak erabakitasunez jokatu duela iragarri du: “Israelek mehatxatzen bagaitu, aurrera jarraituko dugu; Gazara heltzea eragotzi nahi badigu, indarrez egin beharko du”. ●

Denge eta chikungunya kasuak ugaritu dira European, klima aldaketak eraginda

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

Abuztuan chikungunya infekzio kasu bat atzeman dute Hendaian. Bero boladek, tenperaturaren igoerak eta eremu tropikaletara eginda-ko bidaiek areagotu dituzte kasuak.

Eskualde tropikaletan dute jatorria gaixotasun hauek, baina European denge eta chikungunya kasuak ugartzen ari dira; hori ohartarazi du Europako Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako erakundeak. Hain zuzen ere, aurtengo udan Euskal Herrian kasu bat izan da, Hendaian. Gaixotasun horien goraldiak arrazoi argiak ditu, klima aldaketaren eta bero boladen ondorioz heldu baitira Europara; baita, ordea, eremu tropikaletatik heldutako jendeak eta materialek ekarrita ere. Gaixotasuna bi eltxok kutsatzen dute, beren ziztaden bidez transmititzen dira: tigre eltxoa, *Aedes albopictus*, eta *Aedes aegypti* eltxoa. 2021etik, gutxienez, atzeman dira horrelakoak Euskal Herrian.

Kasuak ugartzen ari dira. Euskal Herrian, momentuz, bakarra atzeman badute ere, kezka sortu du. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak prebentzio neurriak ezartzeko eskatu zien Bidasoaldeako udalei, mugaz gaindiko mugimenduek gaixotasuna zabaldu ze-



CALAFELVALLO (CC BY-NC-ND 2.0)

zaketelakoan. Europako beste zenbait herrialdetan, aldiz, kopurua altuagoa da: Frantziako Gobernuak 49 chikungunya kasu jakinarazi zituen 2025eko urtarril eta uztail artean, eta sei denge kasu ekain eta uztail artean. Espainiako Estatuko kasuan, 2024ko datuak daude bakarrik: zortzi kasu izan ziren Herrialde Katalanetan.

Bi gaixotasunek sintoma antzerakoak dituzte, gripearean antzerakoak: sukarra,

giharretako eta artikulazioetako mina, buruko mina eta hazkura. Dena den, chikungunyaz kutsatzen direnen herenak artritis kronikoa garatzeko arriskua du.

Gaixotasunak saiheste aldera, adituek gomendatu dute eltxoen haztegiak ugartzea saihesteko neurriak hartzea. Ilde beretik jo du Eusko Jaurlaritzak ere, eta herritarrak informatzeko eta udalen eta Osakidetzaeren arteko lankidetzaren indartzea proposatu du. ●

MOTZEAN

Euskaltzale independentistak Behorlegiko kanpaldian bildu dira, Nafarroa Behereko EHEk gonbidatuta. Natura, aisialdia eta "euskararen, justiziaren eta independentziaren aldeko borrokez gogoetatzea" izan dituzte ardatz, abuztuaren 25etik 31ra.

Gaskoia irakatsiko dute lehenengo aldiz Samatzeko eta Bidaxuneko eskoletan. Martxan daude okzitanieran jatorria duen hizkuntza berpizteko hainbat ekimen. Ipar Euskal Herrian galzorian dagoen hizkuntza da gaskoia; aurreko mende hasieran galdu zen Hego Euskal Herrian.

Eskoletako euskalduntzea "arriskuan" ikusita, Aiaraldeko dozena bat ikastetxek autokritika egin, eta hamar konpromiso hartu dituzte, hezkuntza komunitateek praktikara eramatekoak. Hernaniko hainbat ikastetxek 2024an argitaratutako dekalogoak da eta Ikasle eta gurasoen inplikazioa eskatu dute.

Dani Larrea euskaltzalea hil da, 65 urterekin. Lan mundua euskalduntzeko asmoz 1997an eratu zen Emun kooperatiba elkartearen sortzaileetako bat izan zen antzuolarra. Hain justu, zuzendari kargua izan zuen hemezortzi urtez, sorreratik bertatik 2015era arte.

PLASTIKOAREN BIRZIKLAPENAREN IRUZURRA: INDUSTRIA PETROKIMIKOAREN GERRILLARIAK GENEVAN

Plastikoaren kutsadura saihesteko azken gailurra porrot izugarriarekin amaitu da Suitzako Geneva hirian, abuztuan. Hori zuten bilatzen petrolio-herrialdeek, plastikoa milioika tonatan sortzen jarraitzeko. Birziklapena da beraien tekno-soluzioa, baina gero eta garbiago dago industria petrokimikoak abiatutako hamarkada askotako iruzur bat besterik ez dela. Askoren aburuz, aukera bakarra polimero kutsagarrien ekoizpena mugatu eta debekatzea da.

 URKO APAOLAZA AVILA

Kontxako hondartzan edo Menorkako kostaldeko kaletan plastiko artean igeri hasten garenean jabetzen gara arazoaren tamainaz, muturrean jartzen digutenean alegia. Baina plastikoak sortzen duen kutsadura aspaldi bihurtu zen mundu mailako krisi bat, ingurumenean ez ezik gure osasunean ere larriki eragiten duena. Hamaika ikerketa egin dira, eta hona hemen enegarrena: egunero 68.000 mikroplastiko arnasten ditugu etxetik atera ere egin gabe.

Lehendik bagenekien gizakiok gure biriketako zuntzetan plastikoak genituela, baina orain kopurua ere badakigu. Okzitaniko Tolosako Unibertsitateko ikerlariek *Plos One* aldizkarian argitaratu dute azterlana: "Bisfenola bezalako gehigarri toxikoak aska ditzakete, baita ftalatoak eta beste konposatu batzuk ere; funtzio endokrinoa aldatzen duten gehigarriak dira eta erditze goiztiarra, nahasmendu neurologikoa, gizonen artean jaiotzetiko ugalketa-akatsak, antzutasuna, obesitatea, gaixotasun kardiobaskularrak, giltzurruneko gaixotasunak eta minbi-ziak sortzeko arriskua handitzen dute", azaldu dio *La Vanguardia*-ri Jeroen Sonke ikerlarietako batek.

**"Oinarritik hasi behar
dugu, eta gerrilla bat egin
gure etsaien kontra", hala
esan zuen Plastics Europe
lobbyaren ordezkari
batek 1994an; orduetik
milioika dolar isuri dituzte
publizitate agentzien
poltsikoetara**

Planeta mailako krisia, beraz. Eta erantzuna emateko, plastikoen kutsaduraren kontrako "tratatu" global bat bilatu nahian aritu dira Nazio Batuen Erakundeko 184 herrialde azken hiru urteetan. 2024ko azaroan Hego Korea-ko Busanen egindako azken goi-bilera porrot totala izan zen, Nicolas Goñik orriotan (ARGIA, 2.897 zk.) azaldu zuen bezala – plastiko esportatzaileen oztopoak tarteko, eta beste behin "txiroenak gehiago kaltetuta"-. Baina azken aukera bat eman zioten euren buruari eta Suitzako Genevan bildu dira abuztuan, herritar asko plaian edo festetan murgilduta eta beste asko udako lan prekarioekin kateatuta zeuden bitartean.

Genevakoa beste porrot bat izan da ordea, berriz ere petrolio ekoizle diren herrialdeen presioaren ondorioz. Funtsean, eztabaida zentratzen da ea plastikoaren ekoizpena derrigorrez mugatu behar den ala ez. Helburua zen plastikoen kutsaduraren arazoari sorreratik bertatik aurre egitea, baina Saudi Arabiak, AEBek, Iranek eta Errusiak gidaturiko herrialde multzo batek emaitza saboteatu sabotatu du urardoturiko zirraborro bat bultzatuta.

Genevako NBERen egoitza atarian
Benjamin Von Wong artista
kanadarrak paratutako artelana,
plastikoen kutsadura erakusteko.



Petrolio ekoizleen sektorea ikusten ari da erregai fosilen merkatua agortzen ari dela eta plastikoen negozioan dauka orain begirada jarrita. Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) 2022ko otsaileko txosten baten arabera, plastikoen urteko ekoizpena bikoiztu baino gehiago egin da 20 urtean, urtero 460 milioi tona ekoizteraino. Ezer egiten ez bada, berriro hirukoiztu egin daiteke 2060rako.

Suitzako hirian, hamar eguneko atzera eta aurreren ondoren, ehun herrialde inguruk osaturiko multzo batek –batez ere Hego Globalekoak– mailetan egin eta etxera joatea erabaki du, nazkatuta. NBEko ingurumeneko arduradunak “konplexutasun geopolitikoak”, “erronka ekonomikoak” eta “tentsio multilateralak” aipatuta desenkusatu dira.

Ulertzeko Genevan orain, eta Ottawan zein Busanen lehenago, petrolioaren lobbyak azpijokoekin nola sartu duen eskua, *The Guardian* egunkariko Damian Carrington kazetariak goi-bilera horietan parte hartu duten hainbat lagunekin hitz egin du eta *“Total infiltration”: How plastics industry swamped vital global treaty talks* (‘Infiltrazio erabatekoa’: nola plastikoen industriak itun globaletako hil ala biziko elkarrizketak lokaztu dituen) erreportajeaz azaldu du, ezin sinetsirik, haien ahotik entzundakoa.

GIZON ZURIAK, IPAR GLOBALEKOAK

Bethanie Carney Almroth ekotoxikologoa da Suediako Goteborgeko Unibertsitatean, eta kazetariari kontatu dio 2024ko apirilean egindako Ottawako bilkuran plastikozko ontziak egiten dituen enpresa bateko ordezkaria gelan sartu zitzaiola garrasika eta mehatxuka. Beste egun batean, AEBetako enpresa kimiko bateko langileek bere inguruan borobil bat egin zuten: “Garrasi egin diten guztiak gizon zuriak izan dira, Ipar Globalekoak”, azaldu du.

Petrokimiketako ordezkariak batzarretan presentzia erakusten du datu soil batek: Genevako gailurrean 234 lobbystak hartu dute parte ofizialki, Europar Batasuneko 27 herrialdeek batera izan dituzten ordezkariak baino gehiago da hori.

Toki guztietan daude, bilera garrantzitsu guztietan. “Nire mugikorrean pribatutasun babesgailu bat daukat –dio Carney Almrothek–, zeren eta gure atzetik ibiliko dira, pantailan duguna filmatuko dute, ikusi nahi dute zer idazten dugun edo zeinekin ari garen txateatzen. Ez nuke sekula nire

ordenagailua irekiko gela baten erdian, jakin gabe zein dagoen nire atzean. Estres eta zelatatze maila izugarria da”.

**“Nire mugikorrean
pribatutasun babesgailua
daukat, zeren eta gure
atzetik ibiliko dira,
pantailan duguna
filmatuko dute, ikusi
nahi dute zer idazten
dugun edo zeinekin
txateatzen dugun”**

Bethanie Carney Almroth,
ekotoxikologoa

Infiltrazioa hainbestekoa da, antolatzaileengan eragiteko gaitasuna ere badutela. *The Guardian*-eko kazetariak gogorarazi

du Ingurumen Programaren (NBIP) zuzendari Inger Andersenek kritika zorrotzak jaso dituela hainbat herrialderen eta talde ekologisten partetik, ez duela inolako anbizioz erakutsi plastikoen ekoizpenari muga bat jartzeko garaian. Ez da harrigarria: NBIpek petrolio-ekoizle diren herrialdeen dirulaguntzak jasotzen ditu erruz, hortik bizi da %95ean.

2024ko urtarrilean Andersenek Saudi Arabia bisitatu zuen. Hilabete batzuk geroago hango ministroekin elkartu zen Riaden, desertifikazioaren kontrako bilera baten testuinguruan. 2025eko Davoseko gailurrean berriz bildu zen haiekin, eta ekainaren 29an Riadera itzuli zen kooperazio akordio bat sinatzeko. Eta bitartean, Saudi Arabiak lau urtean 20 milioi dolar eman dizkio NBIP erakundeari, ustez “ingurumen babes indartzen laguntzeko”. Herrialde arabiarreko petrolio putzuetatik zuzenean intsuflatutako odola.

PLASTIKOZALEEN “GERRILLA”

Plastiko kutsaduraren kontrako munduko ituna, jaio aurretik hilda zegoen. Multinazionalen presioa eta eragina neurtzen duen InfluenceMap *Think tank*-ak 2024ko azaroan kaleratutako txosten baten arabera, 2022an prozesua hasi baino lehen, Exxonmobil (AEB), SABIC (Saudi Arabia), BASF (Alemania), TotalEnergies (Frantzia), Chevron-Phillips (AEB)





F. FUSSTETTER - NBIP / CREATIVE COMMONS

INGER ANDERSEN NBEko Ingurumen Programako zuzendaria Genevako goi-gailurrean, hainbat parte hartzailez inguratuta; petrokimikoen lobbyari men egiteagatik kritikak jaso ditu. Eskuineko irudian, kanpoaldean ordezkariak egindako protestetako bat.

eta plastikoa ekoizten duten beste hainbat konpainia eta elkartek –tartean dago Plastics Europe, zeinak guretzat ezagunak diren Arkema eta Repsol enpresak biltzen dituen– erabaki zuten itunaren helburuak “ahultzea”. Horretarako, alde batetik gobernuak eskatuko zieten birziklapena lehenestea eta, bestalde, plastikoen ekoizpena gutxitzeko neurrien kontra azalduko ziren.

Baina estrategia hori ez da herenegun goa, petrokimikoen sektoreak negozioa egiten segitzeko duela hamarkada asko hartutako norabidearen barruan sar liteke. Birziklapena, ekonomia zirkularra, plastikoa berdea, pirolisi kimikoa... Aldian-aldean agertzen da kontzeptu edo teknologia berri bat, multinazionalen polimeroen unibertsoa esploratzen jarraitu dezaten.

Mohamed Larbi Tunisiako Unibertsitateko irakasleak plastikoen birziklapenaren “iruzur handia” deitu dio mul-

tinazionalen jokabide horri. *Le Monde Diplomatique* egunkarian argitaraturiko *Plastique, l'escroquerie du recyclage* (Plastikoa, birziklapenaren iruzurra) artikuluan azaltzen duenez, sektoreak berrogei urte daramatza gezurretan, 1980ko hamarkada erdialdean ontziratzeko enpresen eskutik birziklapenaren ideia –eta horrekin batera Möbiusen ikur famatua, hiru gezi berde dituen– bereganatu zutenetik.

Larbi gordina da: “Propaganda egiten lau hamarkada igaro ondoren, 1950 eta 2017 artean sorturiko eta botatako 6.300 milioi tona plastikoetatik %10 baino ez da birziklatu”. Bere esanetan, enpresek birziklapenerako teknologia “berritzaileak” iragartzen dituzte, baina errealitatea oso bestelakoa da: petrolioarekin eta gasarekin egiten den etileno konposatu kimikoa hain da ugaria, plastiko “birjinen” prezioa amildu egiten dela, eta birziklapen enpresek ezin dutela kostu ho-

riekin lehiatu. Gainera, “etileno orgiak” ez du amaierarik, eta Txinan, AEBetan zein Saudi Arabian produkzio-planta berriak iragarri dituzte.

“Hamarkadak daramatzate plastikozko zaborraren krisia nahita sortzen”, dio irakasle tunisiarrak. 1994an Plastics Europe bilera batean, hango partaide batek honakoa botatu zuen: “Oinarritik eragin behar dugu eta gerrilla gerra bat egin gure etsaien kontra”. Orduetik milioika dolar isuri dituzte publizitate agentzien poltsikoetara, “soluzioak” saltzeko, Larbiren esanetan.

Greenpeacek azaldu izan duen moduan, “plastikoen pandemia” baten aurrean gaude. Pribilegiatuok jada ez dugu arazoa ezkutatu zaborrak Sri Lankara edo Bangladeshera bidalita, hangoek ur gazitan irentsi ditzaten. Gogoratu, 68.000 mikroplastiko egunero, etxetik ateratu gabe. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com






Magda Oranich i Solagran

TXIKI BETI ALDEAN



EZIN AHAZTU DUT TXIKI AZKENEKOZ BESARKATU NUEN MOMENTU HURA



50 urte dira Francoren diktadura garaiko azken bost fusilamenduetatik. Jon Paredes, *Txiki* eta Angel Otaegi ETako kideak, eta Sánchez Bravo, Humberto Baena eta Ramón García Sanz FRAPeoak. Txikiren abokatuetakoa izan zen Magda Oranich, mende erdia eta gero ere, gogoan du Jon Paredes, soinean darama beti haren argazkia.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Carme Puig Antichekin mintzatu ginen lehengo maiatzean (ARGIA, 2916 zk.). Haren anaia Salvador defenditu zuen abokatu taldekoa izan zinen.

Eta ez dut inoiz hura ahaztuko. Irailak 25 zituen batean, guardiako epaitegira eraman zituzten atxilotuak. Poliziak, urduri. Ni hantxe nenbilen, bestelako afera batzuk zuzendu nahian, eta zalaparta eta aztoramen hura ikusi nuenean, zer zen galdetu nuen. Kezkatzekorik ez zela esan zidaten, lapurreta bat besterik ez zela izan. Salvador [Puig Antich] ez ze-

goen atxilotuen artean, zaurituta zegoela eta [Bartzelonako] Ospitale Klinikora eramana zutelako. Neure abokatu-lagunei hots egin nien –Josep Oriol Arnauri, besteak beste–, eta esan nion saltsa hari politika usaina hartu niola. Oriol, lehena-gotik, Puig Antichen arreba baten adiskide laguna zen, eta lanean hasi ginen berandu baino lehen.

Ez zenuten heriotza-zigorrik ez antzekorik buruan.

Ez hurrik eman ere! Hamar urte ere baziren inor hiltzen ez zutela. Ordena Publi-

koko Auzitegia 1963an eratu zuten, eta behin ere ez zuen heriotza-zigorrik eman. Francok inor hil nahi zuenean, lege antiterrorista bat asmatu eta auzitegi militarra zuzentzen zuen kasua, non erre-kurtoa jartzeko aukerarik ez baitzegoen. Eta halaxe egin zuten Salvadorren kasuan. Ez zegoen auzitegi militarra jotzeko arrazoirik, Salvadorren eta kideen aferan militarrik inplikaturik ez zegoelako: ez Salvador zen militarra, ez atxilotu zuten poliziak ziren militarra, ez delitua zen militarra. Salvador akabatu nahia zen, besterik ez. Itxura txarra hartu nion, hasieratik.



Magda Oranich i Solagran

BARTZELONA, 1945



Abokatua eta politikaria. Salvador Puig Antich eta Jon Paredes *Txiki* defenditutakoa. 1992an Kataluniako Parlamentuko diputatu izan zen eta 1999an Bartzelonako zinegotzi. Iniciativa per Catalunya, CiU eta Junts per Catalunya-ko kide izan da. Giza eskubideen, feminismoaren eta animalien babesaren aldeko aktibista da, eta ACNUR Katalunian eta Barcelona futbol taldearen zuzendaritzetakoa ere izan da. *Qué es el feminismo* (Feminismoa zer den) eta *Ganes de viure, la meba lluita contra el cancer* (Bizitzeko gogoa, minbiziaren aurkako nire borroka) bezalako liburuak idatzi ditu.

Ez zenbiltzan oker, nonbait ere. Irakurria dudanez, kartzelan zeunden Salvador defenditzen hasi zinetenean...

Bai, eta hargatik ezin izan nuen zuzenean parte hartu Salvadorren defentsan. Urriaren 28an atxilotu ninduten, 113 lagunekin batera. [Johan] Cruyff futbolariak Barçan jokatu zuen lehen partidaren egunean atxilotu ninduten. Zenbait hilabete preso eduki ninduten eta, hurrena, berriz, aita hil zitzaigun bihotzekoak jota; 57 urte zituen. Kartzelatik irten nintzeneko, aginduta zeukaten Salvadorren kontrako gerra-kontseilua hasteko eguna: urtarrilaren 8a.

Inoiz esan izan duzu abokatu bezainbat, edo baino gehiago, Gurutze Gorrikoak zinetela.

Bai, esan izan dut, esan izan dudanez! Hura diktadura gorria baitzen! Eta, diktaduran, epaia aurrez erabakita dago, kondenatua hiltzea beste asmorik ez dago. Orduko hartan, are okerrago, Carrero Blanco hil zuen ETAk [1973, abenduak 20]. Ni kartzelatik irten eta Salvador ikustera joan nintzenean, berak esandako hitzak ditut go-goan: "Carrero hil dute, eta ni ere bai!". Argi eta garbi ikusi zuen zer zeterren. Mendeku hutsa! Carrero Blanco ETAk hil zuen, baina diktadurak ez zuen bereizketarik egiten inor hil behar zuenean. Hil zuen Salvador, hil zuen Txiki, eta hil zituen gainerako fusilatuak.

Txiki, Jon Paredes Manot. Hura ere defenditu zenuen, zeure senar Marc Palmés defuntuarekin batera.

Agorrila zen, eta oporretan ni, Kopenhagen. Hala ere, aldiari behin Bartzelonako bulegora hots egiten nuen, zer edo zer ba ote zen galdezka. Haietako batean, Juan María Bandrésen deia jaso nuela jakinarazi zidaten, hari urgente hots egiteko, alegia. Eta hots egin nion, eta gazte bat zuela Bartzelonan, defenditu beharrekoa. "Ez estutu, Magda, larririk ez, ez da buruzagietakoa", oroitzen naiz esan zidala. Baina ez zegoen jakiterik, diktaduran eta orduko agintariekin inoiz ez zegoen jakiterik.

Eta, efektibamente, halaxe izan zen. Oporrak bertan behera utzi eta etorri nintzen Bartzelonara, Txiki ikustera, zuzenean. Inkomunikatuta zeukaten, ordea, eta ezin zenbait egun igaro arte berarekin hitz egin. Oker ez banago, agorrilaren 21ean altxatu zioten inkomunikazioa.

Eta? Orduan zer?

Sumarioari ekin behar! Hasteko, sumario gizenkote bat zeukaten; ondreadua, gero! Eta, hurrena, berriz, sumario txiki bat egin zuten handik, ez hamar orrialde baino gehiagokoa. Ustezko delitu airean erraz epaitzeko moduko bat, atera zuten sumario loditik. Desglosatu egin zuten, alegia. Model kartzelan egon nintzen Txikirekin, eta oroitzen naiz negarretan irten nintzela, ur garbia bezain garbi ikusi bainuen Txiki ere hil egingo zutela. Ordurako, Puig Antichen esperientzia lazgarri hura ere barruan neraman. Banekien Francok



'Nire semea!,' aieneka ama, eta Txiki, betiko iltzatuta gelditu diren hitz haiek esanez: 'Euskaldun guztiak zeure seme dituzu, ama!'. Latza!'

aurrera egingo zuela fusilamenduekin, batean eta bestean hilko zituela militanteak, eta ez zuela Katalunia hildakorik gabe utziko. Eta Burgoen (Espainia) fusilatu zuten Otaegi, eta Madrilen FRAPeko hiru kideak, eta Cerdanyolan Txiki. Izugarritzko izugarrikeria! Kontatuko zizun Mikelek [Paredes Manot], Txikiren anaiak.

Ezin ahaztu!

(ARGIA, 2659 zk. 2019ko iraila)

Elkarrekin izan ginen garai hartan. Amak ez zuen beti semea ikusteko barrurik izan, eta entenditzen dut. Amaren negarra! Lehengo batean, haren [ama] gutun bat azaldu zitzaidan paper artean! Izugarria. Mikelek ere gorriak ikusi zituen, trantzea ez zen inorentzat gozoa izan, eta are gutxiago Mike-lentzat, bertatik bertara ikusi baitzuen nola fusilatu zuten anaia. Eta, dena, hilabete batetik bestera gertatu zen! Eta gauza zeharo azkartu zen irailaren 15ean Txikiren kontrako epaiketa sumario izatetik sumarisimora aldatu zutenean. Epaiketa militar sumarisimoak esan nahi zuen prozesuaren faseak go-goak emanda bezala saltatuko zituzte-



la, di-da batean erabakiko zituztela gauzak: marko osoa ikusten hasi nintzen. Etsigarria zen.

Marko osoa?

Bai, bada! Madrilen Paquita Sauquillo-eta ari ziren FRAP-ekoak defenditzeko lanean, eta noiznahi mintzatzen ginen telefonoz, goizeko lauretan igual!, inork ez baitzuen ganoraz lorik egin garai hartan. Batak besteari esaten genion: "Hots egin halakori, ea inori ezer bururatzen zaion!". Nahizu-nahizu hitz egiten genuen, goizeko ordu txikietan ere, gauzarik normalena balitz bezala; gainera, batzuek eta besteek lehendik ezagutzen genuen elkar. Nerbio-tentsio ikaragarria genuen —"estresa", esaten da orain—, hura infernu gorria baitzen! Behintzat, baten batekin hitz egin!

Zer oroitza duzu epaiketa sumarisimo hartaz?

Puig Antichen epaiketaren eskarmentua genuen: froga guztiak ukatu zizkiguten, balistikoa eta gainerako guztiak. Militarrek ez zuten gure defentsaren frogarik aintzakotzat hartu, jakina. Airean egin zuten epaiketa: goizean hiru ordu, arra-

tsaldean pare bat, eta kito! Heriotza-zigorra zegoen jokoan, baina haiei bost! Eta, justu, horixe izan zen gure estrategia, gauzak atzeratzen saiatzea. Eta zer edo zer atzeratzea lortu genuen. Kasu egin ziguten errekturso txiki baten kasuan —txorakeria bat zen, finean—, beren buruak zuritze aldera-edo. Horrek, dena den, astebete atzerarazi zuen kontua. Epaituak zeuzkaten Madrilekoak eta Otaegi, eta Txikiren epaiketa burutu zain egon ziren, zeren denak batera fusilatzeako obsesioa baitzuten, nahiz bataren kasuak ikustekorik ez izan bestearenarekin. Baina obsesio huraxe izan erregimen diktatorialak!

Ezagutu ez duenak ez daki zer den diktadura...

Ezta epaiketa militarra zer den ere. Haien ezpata eta gainerako parafernalia! Hala ere, hitz bat esan behar dut epaile haien presidenteari buruz. Txiki han, eta ama ere epaiketa-gelan, porru eginda, lur jota. Saioa bukatu, eta amak semea besarkatu nahi izan zuen. Ordu arte, ezin izan zuen ikusi ere egin! Semea besarkatu nahi, eta Txiki zaintzen zuten militarrek amari ezetz. Orduan, epai-



ABOKATU

"Abokatu izan nahi nuen, horixe nuen bokazioa, nahiz etxean ez zen halako tradizioz. Haatik, gogoan hartu nuen behin aitak esandakoa. Neska koskorretan ikaskide bat izan nuen María Antonia izenekoa. Bazuen urritasunen bat eta, betikoa, bullying-a egiten zioten. Nik, berriz, babesten nuen. Behin, haren kontura, ikaskideekin borrokatu nintzen, eta eskolatik etxera bidali ninduten, María Antonia defenditzeagatik! Etxean, aitak esan zidan: 'Hazten zarenean, ikasi abokatu, orduantxe defenditu ahal izango duzu jendea!'. Eta holaxe".

DEFENTSA

"Jurisdikzio militarra ez zen mundu honetakoa. Ez errektursoz jartzeko modurik, ez ezer, ez zegoen Ministroen Kontseiluari indultua eskatzea besterik. Baina, kasu horretan ere, epailea hogeita hamaika eskutik zen beti, berak bidaltzen baitzizkion gobernuari berak ezarritako heriotza-zigorrak! Horixe gertatu zen Salvador Puig Antichekin, eta berdin 1975eko bost fusilatuekin ere".

Azken hitza

BALA-ZORROAK

"Gure artean beti esaten genuen Franco, azkeneko orduan ere, eskuak odolez zikinduta hilko zela. Baina, beharbada, ez genuen sinisten, edo ez nuen sinistu Txiki nola hiltzen zuten ikusi nuen arte: bala-zorroak jaso nituen, graziazko tiroarena, besteak beste".



leen mahaia gidatzen zuen presidenteari joan nintzaion, amari semearekin tarte bat egoten uzteko eskatzeko. “Andrea, horretan arrazoi emango dizut!”. Eta polizia militarri agindu, eta egon ahal izan ziren elkarrekin tarte huraxe; ordu erdia, igual.

Lekuko izan zinen?

Bai, hantxe izan nintzen neu ere, ez Mikel —uste dut—, eta ez Marc [Palmés], erai-kin militarrek erdian izaten duten patioan. Ez dakit momentu hura ez ote zen izan, niretzat, exekuzioa bera baino lazgarriagoa. Ama, hiltzera doan semearekin azkene-koz hizketan! Amak, ez zuela hiltzerik nahi semeari esaka. “Nire semea!”, aieneka ama, eta Txiki, betiko iltzatuta gelditu diren hitz haiek esanez: “Euskaldun guztiak zeure seme dituzu, ama!”. Latza! Beste momentu bat gogorra, Txikiri heriotza-zigorraren berri eman nionean.

Zeuk jakinarazi zenion?

Bai. Epaietan, zigor hura eskatu zuten. Ikustekoa zen, epai-le haiek denak, militarrek, zutik. Gero, hiltzera kondenatzea erabaki zuten, eta horren berri eman behar izan nion Txikiri. “Ez alferrik, Salvador Puig Antich egondako ziegatan jarri naute”, esan zidan. Izan ere, Model-eko presoan artean oraindik bizi-bizirik zegoen Puig Antichena. Urtea inguru zen ordutik. “Bera eduki zuten tokian sartu naute”, Txikik niri! Beharbada ez zegoen zuzen, ziega guztiak berdinak baitira, baina ez dakit, ez nago seguru.

Indulturik espero izan zenuten inoiz?

Hori ere bai. Izan zitekeen, bai. Baina

sumarioa desglosatzen hasi zirenean, gero epaiketa sumarisimo bihurtzen, militarrek gure froga guztiak ukatzen... Errekurtsoa jarri genuen, ezertarako ez, jakina. Mobilizazioak ere izan ziren, ez Burgosekoak [Burgoseko prozesua, 1970] bezainbestekoak, baina izan ziren.

Eta nazioartean ere, Espainiako enbaxaden kontra eraso zion jendeak. Haatik, uste dut alderdi maioritarioek

**“
Uste dut alderdi
maioritarioek ez zutela
behar beste egin.
Ilegalak ziren, denok
ginen ilegalak, baina
iruditzen zait PSUC ez
zela mugitu”**

ez zutela behar beste egin. Ilegalak ziren, denok ginen ilegalak, baina iruditzen zait PSUC ez zela mugitu.

(...)

Edo ez zela nahikoa mugitu. Berdin egin zuen Puig Antichen kasuan. Puig Antich anarkista, eta PSUC komunista, eta bada-

kigu anarkistak eta komunistak inoiz ez direla bata bestearekin gisa onean konpondu. Txikiren kasuan, berriz, biolentziaren erretolika hori dena aterako zuten. Ez dakit. Ni neu ere biolentziaren kontrako naiz, baina diktadurak iraun bitartean zernahi defendituko nuen! Ezin ahaztu dut Bartzelonako gobernu militarreko patio hartan, Txiki azkene-koz besarkatu nuen momentu hura! Hitz egin ezazu Mikelekin [Txikiren anaia], esatekoak eta bi kontatuko dizkizu, Cerdanyolakoak-eta! Izugarritzko izugarrikeria egin zuten Txikirekin, ez da beste hitzik. Hala ere, berriz esango dizut, hitz egin Mikelekin. ●



mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaigo Industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Iritziak

Zarata egiteari utzi, gora begiratu



JESÚS RODRÍGUEZ
DIRECTA-KO KAZETARIA

Abuztuan 411.000 hektarea baso eta lursail erre dira León, Asturias, Ourense, Cáceres eta Zamoran. Bizkaiko eta Gipuzkoako azalera osoa beste. Irmotasunez esan dezakegu muturreko baldintza meteorologikoei sutu zituztela suteak, berotze global antropogenikoaren ondorioz. Gainera, oihanpeko sua frenorik gabe zabaldu zen basokudeaketa txarraren ondorioz, mendiak abandonatzea sustatzen duen eredu ekonomikoaren ondorioz; auziaren lanketa politikoa burokratizatuta dago eta kapitalismoaren interesen mende. Bulegoetatik landa-mundua arazotzat hartzen dute, eta ez lurraldearen noraez merkantilizatzailearen irtenbidetzat. Horrek gure etxeetatik gero eta gehiago urruntzen du edaten dugun uraren eta jaten ditugun elikagaien genesisia.

Erantzun instituzionalak Valentziako tanta hotzaren ondoren jasan behar izan genuen patroiz negargarria jarraitu du. PPko presidente autonomikoei eta Feijóok lotsagorritu gabe baieztatzen dute erru guztia Pedro Sánchezena dela eta, aldi berean, PSOE udako tertulien lokatzetara sartzen da, argudio ezin kaskarrago hauek erabilita: eskumenak, protokoloak eta larrialdi zerbitzuen eraginkortasuna. 78ko erregimenaren marko mentalean nor ausartuko da gora begiratzera? Nor ausartuko da hazkunde ekonomikoaren eta merkatu libre sakrosantuen printzipioak zalantzan jartzera? 2024ko Valentziako uholde

Nahiago dute zarata egin eta aldaketa klimatikoaz hitz egiten aritu, baina erabakitasunez ekin gabe, ekoizpen eta kontsumo sistema zalantzan jarri gabe

hilgarrietako prezipitazioen errekorren grafikoa eta 2025eko penintsulako sute suntsitzaileen ondorioz erretako hektareen grafikoa lotzen ditu inork seinlatu nahi ez duen datu batek: planetaren berotze globalaren 1,5 graduak gaintitu ditugu dagoeneko, ondorio katastrofikoak mugatu nahi bagenituen zeharkatu behar ez genuen lerro gorria.

Basoetan eta ibai-ibilguetan zer gertatzen den ulertzeko, ke lainoak alde batera utzi eta gure buruzagiei begiratu behar zaie. *Don't Look Up* (Ez begiratu gora) filmaren antza duen eszena dago: erakundeetako arduradunak plaza publikoan borrokatzen dira, zarata egiteko eta noraez suizida baten aurrean beharrezko erantzun eta ekintzak saihesteko. Noraez horrek, Nazio Batuen klima-aldaketari buruzko gobernu arteko aditu taldearen buru diren zientzialarien hitzetan, giza

espeziea desagertzea ekar dezake. Baina gora begiratzek eta gertatzen ari denaren egia objektiboa onartzeki behartuko lituzke ekitera, erabaki batzuk hartzea ez direnak gizartea hauteskundearen filtrotik –lau urtean behin hautetsontzietara doazen botoetan pentsatuz– begiratzeko dutenen gustukoak.

Gora begiratzek, gure planetaren berotze datuei begiratzek, eragin beharko luke Pedro Sánchezek berehala Salvador Illari agintzea Bartzelonako Prat aireportuaren handitzea gelditzeko. Gora begiratzek, baita ere, eragin beharko luke PSOEek gobernatzen dituen administrazio guztiek debekatzea makro-gurutzetentziak beren portuetatik igarotzea. Gora begiratzek eragin beharko luke Grande-Marlaska Barne ministroak Espainiako Poliziaren Informazio Komisaria Nagusiari baimena kentzea honetarako: herritarrek berehalako arriskuaz ohartarazteko mobilizatzen diren zientzialari eta aktibistak jazarri, ikertu eta kriminalizatzeko. Horregatik guztiagatik, ez dute gora begiratzeko. Nahiago dute zarata egin eta aldaketa klimatikoaz hitz egiten aritu, baina erabakitasunez ekin gabe, ekoizpen eta kontsumo sistema zalantzan jarri gabe, ez dadila gertatu norbaitek leporatzea “iraultza” egin nahi izatea. Pasibotasunaren erretorikak bultzatzen du iniziatiba eskuin muturrak hartzea. Konturatzen garenerako eta azeleragailua sakatu nahi dugunerako beranduegi izango da. ●

Txitxar txiroak



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Dena ongi doa. Nola izan liteke bes-tela opor garaian, gora eta behe-ra, ase arte ibili ondoan? Zeregin zehatzik gabe alderrai ibili gara, gogoa ematen zigun leku eta jendeen artean. Gustukoa baizik ez dugu egin, ez-atse-gina zena ahanzi eta baztertu, jainko tipiak bagina bezala, eta horrela iraunen genuke gogotik, geroan ere, uda eta opor-rak bukatu ondoan.

Autoko berinak zabalik, etxerako bidean goaz jada, ileak airean harroturik. Goiza argitzen hasi da, eta Provence-ko mendixketako harriek urre kolorekoak dirudite. Larretan gaindi, usain gozoak hedatzen dira: erromeroarena, izpili-kuarena, salbia basatiarena. Haize ari-nak, xuxurla gozoan, olibondoak eta izei luzeak dantzan jartzen ditu. Kanpoan, bide saihetsean, mahastiak luzatzen dira, errenkadaz errenkada. Geldituko bagina, txitxarrak entzunen genituzke engoitik. Eguzkiaren beroa oraindik leuna bada ere, lehen txitxar bat hasiko litzateke, ba-karrik, *tzirr-tzirr*, eta gero beste bat, eta beste bat, *tzirr, tzirr, tzirr* eta bat-batean giroa gortuko lukete, *tzarr-tzarr-tzarr...* Baina ez gara geldituko, etxerako bidean baikara, lehenbailehen heltzekotan, han berriz gozatzeko, lasaitasuna, etxea, eta...

Eta, autoko alarma batek jo du... Tiuta bat-batekoa eta zorrotza izan da, gure baitako irribarrea urratu duena. Badaki-gu, laster, ez dugula aitzina egiten ahal-ko, autoa ikaran ari baita jada, kolpeka



MAIDER LETURIAGA

aitzina eginez. Eta azkenean, autoa gel-ditu da, eta berekin batera mundua: ez da gehiago txitxarren dardararik, ez pinu-diaren xuxurlarik, ez mahastien lerrorik eta olibondoen dantza gozorik. Paisaia ederra hortxe da oraino, ez gara haren parte dagoeneko.

Eta jainkoak bezala bizi ginen unetik landa, hain laster, zein gauza gutxi garen orain, autobide bazterrean, kamioien burrunba astunen artean, txitxar txiroak hesi metalikoen giblean. Telefonoari deika hasi gara: segurantza, laguntza, paperak, hitz teknikoak. Hitz horien artean desegin da zoriona. Bai, garabia gure bila etorriko da. Oraintxe. Ordua ez dakigu zehazki: laster, edo berantago, dena da posible. Zaila zaigu segurtamenik ukaitea, motorra itzali denetik, ez baikara deus bide hegian, besteen meneko panpi-nak, besterik ez. Garabi, konpontzaile eta aseguruaren esku egonen gara, noizbait, eta badakigu ez dugula berehalakoan nahi duguna egiten ahaliko.

Azkenean, bai, heldu da kamioia, eta hartan, gizon bat, bibote lodikoa, eguz-ki betaurrekoak soinean. Gu salbatzaile

baten esperoan egon gara; hark, lagun on baten garajera eramatea proposatu digu, ez baita erraza izanen, dioenez, eskuak gerrian kokaturik, begirada zuzen eta du-darik gabekoarekin. Baiezkoa eman dio-gu iradokizunari –zer erantzun bestela–, autobidetik lehenbailehen ateratzeko as-moz. Garajea izanen da ondoko helmuga: ez hondartza, ez mendia, ez postaletako irudia, baizik eta burdinaren usaina, olio zaharra lurrean, eta mekanikariaren esku beltzak. Eta leku honetan ere, gauza gu-txi izanen gara, azalduak izanen zaizkigun aberien ezjakin hutsak, eskainiak izanen zaizkigun konponbideen sinestun han-diak. Eta zorionekoak baikara, dena ongi aterako zaigu: bizkitartean, hiru egune-ko epean eta hilabete sari baten heina ordaindurik. Oporretan gastatzeko ge-nuen aurrekontua bikoiztuko du aferak; lanerako gogorik ez bagenuen ere, gure abenturek horretaratu gaituzte.

Eta hor konturatzen gara: bai, bizi-tzak badu ironia, txitxarren kantuari uko eginarazteko ez da behar ekaitzik edo uholderik, nahikoa baita auto baten alarma xaloa. ●



MIKEL BASABE
KORTABARRIA
IRAKASLEA

Normal plantak egiten

Hilotan, euskara sarritan izan dugu albiste. Txarrerako, euskaltzaleon artean nagusi den aldarre ezkorra ikusita. Baina euskararen egoera txarra dela ez da kontu berria, datuen bitartez beste zerbait iradoki den arren.

Har dezagun, adibidez, hizkuntzak irabazi ei dituen hiztun berrien kopurua. VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, "EAEn 16 urte edo gehiagoko 680.629 euskaldun daude, 1991n baino 261.000 gehiago. (...) Adinari erreparatuz, euskaldunen ehunekorik handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago: 16 eta 24 urte bitartekoen %74,5 euskaldunak dira; 1991n %25 ziren". Horietako gehienek etxetik kanpora ikasi dute; adin horretan, ikastetxeetan. Lehenengo zalantza berez dator: zelan kalkulatu dute euskaldun gehiago dagoela? Izan ere, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, B1 onartzen zaie B eta D ereduak ikasleei. Horren arabera hartzen dira euskal hiztuntzat? B1 egiaztatuta? Are gehiago: B ereduak ikasleek -kontzertatuko umeak, ia guztiak- lortzen al dute maila hori? Zelan dakigu? Nork neurtu du? Ba al dakite berbetan?

Beharbada, horrexek azaltzen du hainbestetan aipatzen den ezagutzaren gorakadaren eta erabileraren geldialdiaren arteko alde ustez gero eta handiagoa: bene-benetan, ezagutza ez

dela hainbeste handitu. Horregatik da hain premiazkoa DBH eta batxilergoa amaitzean gure ikasleen euskara maila neurtzea, ahozkoa barne: benetan non gauden jakin beharra daukagu.

Ezjakite horrek normal plantak egiteko aukera eman digu. Ezin arazorik egon, gero eta hiztun gehiago badago (gazteen artean, batez ere) eta administrazioa gero eta euskaldunagoa bada. Bide batez: norbaitek neurtu al du azken lau hamarkadetan zer bilakaera izan duen euskararen erabilerak administrazioaren barruan?

Normal plantak egitearen azken adibidea selektibitateak ekarriko digu, datorren ikasturtean. Jakina denez, EAEn azterketa bera egiten dute ikasle guztiek, ikasi duten hizkuntza-eredua zein den ere. Azterketa hori idatzizkoa soilik da. 2025-26 ikasturtean, selektibitatea aldatu egingo dute... euskal literatura sartzeko. Ahozkoa neurtzea planteatu ere ez da egiten, eta entzumena ez da egingo, EHUK horretarako gaitasunik ez ei duelako. 2026an, entzunezkoa egiteko gaitasun teknikorik ez.

Zoritxarrez, batxilergoko ikasleekin selektibitateko edukia baino ez ohi da landu. Zer ez da sartuko? Bada, erabileraren handitzea beharrezkoak diren trebetasun biak: ahozko adierazpena eta ulermena. ●



CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA

Maitasunaz

Akordatzan naiz Blanca Llum Vidal poeta maitasunaz hizketan entzun nuen lehendabiziko aldiaz. Bere esperientziak aritu zen, besteak beste. Esan zuen bere ordura arteko bizitzan maitasuna beti amaitzen zela, baina maitasunak ez lukeela amaitu beharko sentituz bizi dela. Ez dela erromantikoa den sentipen bat, baina bai zerbait oso sakona; eta agian desagertu beharrean eraldatu egiten dela maitasuna deitzen dugun hori. Bestalde, jabetzarekin eta dependenziarekin oso lotuta ikusten zuen maitasuna. Izan ere, oso harreman gutxi

daude elkarrekiko parekoak direnak, mirarritako hartu zituen berak. Area-go, maitasun batzuek droga bat bezala harrapatzen zaituztela eta erabat suntsitzaileak direla gehitu zuen. Sebastián Perelló -*hautatzea baztertzea baita*- eta Marina Tsvetaieva -*gauza bakarra maite duenak ez baitu ezer maite*- aipatu zituen, baina, guztiaren gainetik, esaldi batekin geratu nintzen, gidatzen dudanean nirekin autoan daramadana: politikoa dena da maite duzun hori hautatzea, jarrera bat hartzea, ardura hartzea; haatik, dena maitatzea biziz letasun neurrigabea da. ●

'Txoloak, sudakak, moroak, payoponiak'



LAURA PENAGOS RODRÍGUEZ
ANTZEZLEA ETA SORTZAILEA

C hocón, Kolonbiako hiri batean, *beltzak, indigenak* eta *mestizoak* elkar bizitzari eusten saiatzen dira. Beltzek *txoloak* deitzen diete embera indigenei, eta emberekin beren hizkuntzan hitz egiten dutenean, kristauak hitz egiteko esaten diete bai *mestizoek* eta bai *beltzek*. *Mestizoek* beltzei *beltzak* esaten diete, eta gaztelania ondo ahoskatzeko eskatzen diete. Embera herri indiarrek bere nortasuna aldarrikatzen du eta esaten du haiek ez direla *txoloak*, baizik eta jatorrizko herria edo indigenak direla. *Beltzek* esaten dute ez direla *beltzak*, afrikarren ondorengoak direla. *Mestizoek*, bestalde, zuriak direla uste dute, eta beraz, besteak baino koxkatxo bat gorago daudela. Esango nuke Hego Amerika osoan errepikatzen dela egoera bera, kontua ez da ahuntzaren gauerdiko ez tula. Eta hemen, guri, hegoamerikarroi, ijitoek *payoponiak* deitzen digute. Hara non! Ijitoek, ze paradoxa!

Ez dago arrazismotik edo klasismotik ihes egiten duen herririk. Eta esaldi hori ez da justifikazioa, errealitatea baizik, tamalez. Ez dut inor ezagutzen arrazista eta klasista ez denik. Beste gauza bat da identifikatzen jakitea noiz zeharkatzen diguten begirada eta pentsamendua mundua eta gizartea ulertzeko logika zahar

Euskal Herrian migratzailea izatea bezain deserosoa da euskalduna izatea, nolabait. Beti oin puntetan ibili behar dugu eta barkamena eskatu behar dugu

horiek. Herentzia eta praktika sakon eta sustraitua da. Kolonialismoaren aztarna, kasu honetan, espainiarrena.

Zer esan gaur egungo Euskal Herriaz? Gogoan dut Euskal Herrira iritsi berri, maiz entzuten nuela –euskaldunon berezitasun eta jatortasun gisa– hemen ez zegoela arrazakeriarik. Horrek arrazakeriaz sakon hausnarrarazi zidan, eta baieztapen horiek eta neure esperientzia sozial eta pertsonala alderatu nahi izan nituen. Eta, zoritxarrez, espero zitekeen

emaitza eman zuen horrek. Arrazakeria beste herri batzuen inbasioa, espoliazioa, esplotazioa eta genozidioa justifikatzeko Mendebaldeko asmakuntza da. Lotsagarria iruditzen zait gaur egun hori guztia azaltzen ibili behar izatea, kaka esplikatzen, alegia. Baina ikusitakoa ikusita, edo oso oroimen txarra dugu, edo hainbeste pantaila erabiltzeak garuna frijitu digu, edo ez dugu ezer ulertu. Are okerrago, egitura erreazionarioak eta eskuin muturrekoak jarraitzaileak irabazten ari dira Euskal Herrian.

Adibide gisa orain dela gutxiko eraso arrazista Hernanin. Egoera horrek munstroaren letaginetako bat erakutsi digu, baina duela mende asko isiltasunean eta zigorgabe diharduen munstro horrek letagin, ebakortz, betortz eta hagin bilduma zorrotza eta ikaragarria du. Eta, jakina, euskara astintzen duen munstro bera da. Kolonizatzailearen eta kolonizatuaren arketipoak eta pentsamendua desmuntatu behar ditugu. Zein elkarbizitza eredu mota eraiki dezakegu bestela?

Euskal Herrian migratzailea izatea bezain deserosoa da euskalduna izatea, nolabait. Beti oin puntetan ibili behar dugu eta baimena eta barkamena eskatu behar ditugu existitzeagatik bakarrik, beste batzuk irainduak senti ez daitezen. ●

ZIGOITIA

ABUZTUAK 2
Larunbata

ZARAUTZ

ABUZTUAK 22
Ostirala

ZUMAIA

ABUZTUAK 29
Ostirala

DONOSTIA

IRAILAK 6
Larunbata

ERRETERIA

IRAILAK 13
Larunbata

ALGORTA

IRAILAK 13
Larunbata

ZERAIN

IRAILAK 21
Igandea

AZPEITIA

IRAILAK 26
Ostirala

MUNGIA

IRAILAK 27
Larunbata

GASTEIZ

URRIAK 4
Larunbata

DURANGO

URRIAK 4
Larunbata

EIBAR

URRIAK 11
Larunbata

Antolatzaileak:

BioLur, Bio, EKOLUR, INALIZATSA

eko lurra, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa, Ekintza eta Ingurumen Departamentua, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Departamentua

Babeslea / Financiado por: Euzkadi, aspaina, Euzko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Departamentua, Euzko Jaurlaritzaren Kudeaketa, Ekintza eta Ingurumen Departamentua



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik
gorako erosketetan.



ARRAZAKERIA

Eskuin muturrerantz arrastatzen gaituen korronte zabala

Europar eta munduan arrazakeria gora doa, eta Euskal Herria ez dago joera horretatik salbu. Egun, herritarrak eta jendarteak eskuin muturraren baloreak bere egiteko bide nagusietakoa da arrazakeria. Arazoaren larritasunari tamaina hartzen saiatu gara, eta aztertu ditugu zenbait joera eta mugimendu kezagarri, arrazakeriak ezkerrean duen irismena, informazio faltsuen zabalpena edo Irungo auzo patruilak kasu. Aurre egiteko gako batzuk jaso ditugu ere.

 **ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**



EITB

2024, urria: Donostiako Egia auzoan, kalean bizi diren migratzaileen eta haiei afariak ematen zizkieten pertsonen aurkako mobilizazioak deitu zituzten *Lo que no te cuentan de Donosti* Telegram kanaletik; Trintxerpen, hainbat gauez kaputxak buruan eta burdin barrak eskuan migratzaileen aurka atera zen kalera herritar talde bat; Gasteizko Errota auzoan, asteroko mobi-

lizazioak egiten hasi ziren *Delinkuentziarik gabeko auzo seguru baten alde* lelopean, migratzaile batzuek okupatutako lonja bat jo-puntuari. Abendua: Irunen, lehergailu txikiekin eraso egin zieten Laxakita gaztetxeari eta Mosku plazan Mugimendu Sozialistak okupatutako espazioari; Arrigorriagan, gizon talde batek merkataritxinar bat jipoitu eta ospitalera bidali zuen; Baionan, hiru gizonak bi emakume jipoitu eta irain arrazistak

egin zizkieten; Miarritzen, beste horrenbeste pairatu zuen Uber gidari batek; Laudion, lau gazte arrazializaturi talde eraso egin zieten *paintball* pistolekin gauerdian, bizitoki zuten aldagela abandonatutako atea kolpeka bota ostean.

2025eko martxoa: Lekeition, lau turistak eraso zieten jatorri pakistandarreko hainbat langileri irain arrazisten artean; Maiatza: Donostiako Altzan, *Gure hiri/auzoetan delinkuentzia gehiago ez* lelopean mobilizazioa deitu zuen auzokide batek, eta Espainiako eskuin muturreko Frente Obrero eta Juventud Combativa taldeek babes adierazi zioten; Cintruenigon, *Cintruenigo delinkuentzerik gabe* lelopean mobilizazioa egin zuten Vox eta Frente Obreroren babesarekin; Irunen, auzokideen patruilak jaio ziren. Ekainean: Hernanin, hainbat talde eraso antolatu zituzten magrebtar jatorriko herritarren aurka; Martzillan, migratzaile adin txiki-koei eta beren zentroari eraso egin zieten herritarrek, aurreko egunetan "herri seguru bat defendatzeko" mobilizatu ostean. Uztailean: Barakaldon, irain arrazistak egin zituzten Agharas elkarteak txosnan lanean ari zirenen aurka; Gasteizen, "Moroak Espainiatik kanpora" zioten pegatinak itsatsi zituzten hainbat auzotako meskita eta magrebtarren negozioetan; Hendaian, Herriko Etxeak herritarren "elkartasun-sareak" sortzea onartu zuen, Polizia ohartarazteko "edozein gertakari susmagarriren" aurrean.

2024-2025 ikasturtera mugatutako mobilizazio, ekimen eta eraso arrazista esanguratsuen zerrenda da aurrekoa, inolaz ere osoa.

ARRAZAKERIAK EZKER-ESKUIN

"Pixkanaka, tantaka, ideia arrazistak eta faxistak barneratzen ari dira gizartean, baita tradizio antifaxista duten herri eta auzoetan ere, eta beren burua arrazista-



◀ "Morofobia" salatzeak Gasteiz Antirrazistaren mobilizazioa, uztailaren 28an.



MANU ROBLES ARANGIZ FUNDATZIOA

Herritar bat pankarta jartzen Donostiako Aste Nagusian, 2024an.

tzat ez duten pertsonen artean". Irungo Elkargune Antifaxistaren hitzak dira, uztailaren 23an "arrazakeriaren", "auzo patruilen" eta "faxismoaren" aurka antolatutako mobilizaziora deitzeko idatzitakoak. "Gaur egun, edozeinek zabal ditzake ideia arrazistak", adierazi zioten *Berriari* Bilgune Feministako Kattalin Artola eta Mugimendu Sozialistako Nahikari Mateok Hernaniko txosnen ordezkari gisara, herriko jaietan gutxienez 11 eraso arrazista identifikatu ostean. Arrazakeriaren gorakada "maskulinitate eredu atzerakoi" baten, mundu mailako militarizazioaren eta sare sozialen eraginaren hazkundearekin lotu zuten, besteak beste, eta hazkunde handiena gazteen artean duela ohartarazi. Auzokide ezkertiarren artean ere arrazakeriak zuen irismenaz ohartarazi zioten ARGIAri, 2024ko urriko mobilizazioen harira, Gasteizko Errota eta Donostiako Egia auzoetako bizilagunek. Hazkundera ezkerreko sektore abertzale militanteetara heldu izanaren frogatzat hartu daitezke hautsak harrotu zituzten José Mari Esparzaren *Migrazioa? Ez eskerrik asko* (2022) eta Juan Mari Olarraren *Immigrazioa Euskal Herrian* (2024) artikuluek.

Arrazakeriaren eta eskuin muturraren gorakadak azken urteotan ikusgarritasuna irabazi duela bai, baina fenomeno arnas luzeagokoa dela azpimarratu diote ARGIAri Nayua Aduh Gasteiz Antirrazista eragileko militanteak eta Anaitze Agirre Irungo Harrera Sareko kide eta EHUKo Kazetaritza Saileko irakas-

leak. "Mugimenduok urte asko daramagu ohartarazten arrazakeria hedatzen eta sakontzen ari dela", dio Agirrek. Egiturazko egoera "orain dela hamar urte antzekoa" zela dio Aduhk, orduan isiltzen ziren zenbait ideia "orain esateko aukera gehiago" badago ere.

"Pobreziarekin lotutako delituen aurreko inseguritate pertzepzioa da eskuin muturraren eragiteko ardatza"

Anaitze Agirre

Bat datoz arrazakeria eskuineko espektro politikotik harago eta ezkerrean ere bidea egiten ari denaren ideiarekin. Hori azaltzeko zergati ezberdin baina bateragarriak eman dituzte. Aduhren usteetan, hamarkada bat atzerago "izan zintezkeen ezkerreko militantea eta transfobia, arrazista edo matxista, arazorik gabe", baina eraldaketa garrantzitsuak izan dira, "eta jende ezkertiar askok portararak aldatu baino nahiago du erosoagoak zaizkion tokietara mugitzea". Agirrek pobretze orokortuarekin eta etorkizun bizigarriagoen esperantza ezarekin lotu

du hazkundera: "Klase ertainak eta langileriak bizi duten inseguritatea gora doa, enplegua izatea ere ez da bizitza duin baterako bermea". Inseguritate horren iturburu nagusia goikoek hartutako erabaki politiko-ekonomikoak dira, baina, kontrara, fokua behean jartzen da, erabaki horien kaltetu nagusiengan. "Pobreziarekin lotutako delituen aurreko inseguritate pertzepzioa da eskuin muturraren eragiteko ardatza, argi eta garbi, hortik lortzen du bere baloreak gizarte sektore askotara hedatzea". Sare sozialen eragina erabakigarria da eremu honetan.

SARE SOZIALAK ETA HEDABIDE HEGEMONIKOAK

Eskuin muturrak inbertsio handia egin du sare sozialetatik gizartearen eragiteko, eta hainbat euskarri osatutako ekosistema oso bat sortu du: hedabideak, *influencer*ak, eragile sozial eta politikoen kontuak... Horien artean daude propio delinkuentzia eta inseguritate *ikustarazteko* Telegramen, WhatsAppen, Facebooken edo Instagramen sortutako kanalak, asko hiri, auzo edo herri mailakoak. Euskal Herrian, horietako ezagunena ziurrenik *Lo que no te cuentan de Donosti* Telegram kanala izan da, milaka kide lortu eta izen bereko kontuak sortu zituen Bilbo, Gasteiz eta Iruñerako -arrakastarik gabe-, baina badira gehiago ere.

Erabiltzaileek hainbat eduki partekatzen dituzte kanal horietan: hedabide hegemoniko zein eskuin muturrekoek ar-

Recibido por WhatsApp:

Junto al apeadero de tren que cruza el puente llegando a Barkaiztegui hay una casa abandonada muy grande petada de moros que viven de okupas.

Hay un semáforo que dura unos 4 min que da paso alterno en la carretera justo a la altura de esa casa abandonada.

Han empezado a hacer lo siguiente: se tiran al suelo para que los coches paren y en cuanto bajan los conductores les atracan.

Ojo si vais a barkaiztegui.



Donostiako Martutene auzoan zabalduetako informazio faltsua: ezkerrean, auzo mailako WhatsApp talde batean zabalduetako mezua; eskuinean, informazioaren jatorria, Basozabal golf klubak zabaldu zuena.

gitaratutako lapurretak, eraso sexualak edo Poliziaren esku hartzeak; arrisku-tsuak omen diren zonalde eta pertsonen inguruko komentario, izen-abizen, argazki edo bideoak; kezkaz, gorrotoz, suminduraz edo beldurrez betetako iruzkinak. Dena, ustezko delituen eta horien egileen ustezko arraza nabarmenduta.

Gure herri eta auzoen argazki jakin bat elikatzen dute: herritar (zuri) arruntan aurkako arrazializatu pobretuen lapurretak eta erasoak eguneroko ogi dira, politikari eta erakundeak ezikusiarena egiten edo zuzenean konplize, eta Polizia ezgai. Nolatan ez du eskatuko segurtasuna eta esku gogorra hortik elikatzen den herritarrak? Kanal horietako edukiak partaide zuzen ez direnetara ere zabaltzen dira tarteka: auzokideen sare sozialetara, elkartek, kuadrilla edo eskola taldeetara...

Informazio faltsuek arrazakeria eta gorrotoa elikatu dituzte, besteak beste Hernanin eta Donostiako Martutene auzoan

Auzo eta herri inseguruen pertzepzioa ez legoke horren zabaldua, ordea, hedabide hegemonikoek ere ikuspegi berbera elikatuko ez balute –baina alderdi politiko eta instituzioekiko kontrakotasuna alboratuta–. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Vocento taldearen *El Correo* eta *El Diario Vasco* dira horren adierazle muturrekoena. Urteak daramatzate pobreziari loturiko delituen, herritarren arteko gatazken edo Poliziaren esku hartzeen inguruko albisteak etengabe argitaratzen.

SOUTHPORT ETA TORRE PACHECOTIK HERNANI ETA MARTUTENERA

Erresuma Batua, 2024ko abuztua: mobilizazio arrazista jendetsuak piztu ziren erresumako hiri nagusietan. Manifestariak hamarnaka meskitaren eta asilo eskatzaileak hartzen dituzten hotelen aurkako erasoak burutu zituzten, pertsona arrazializatuak jazarri. Jatorria: uztailaren 29an Southport-en (Ingalaterra), 17 urteko gizon gazte batek 6, 7 eta 9 urteko hiru haur hil zituen. Sare sozialetan eskuin muturrak egilea musulmana zela zabaldu zuen. Bi egunera epaileak berak jakinarazi zuen ustezko egilea Cardiff-en (Gales) jaioa zela, osasun mental arazoak zituela eta besteak beste autismoa diagnostikatu ziotela.

Torre Pacheco, Espainia, 2025eko uztaila: eskuin muturrak migratzaileen aurkako “ehizara” deitu zuen eta estatu osotik heldutako militanteek izua za-

baldu zuten herrian zenbait egunez. Jatorria: herriko gizon edadetu bati eraso egin zion beste batek, eta ukabildadek ospitalera eraman zuten. Canal Red hedabideko *La Base* saiok ikertu zuenez, eskuin muturrak talde erasoak izan zela zabaldu zuen sare sozialetan, eta marrokoar jatorriko herritarrek burutua. Voxi lotutako hedabide eta herritarrek ustezko bost erasotzaileen argazkiak zabaldu zituzten lehenik, eta erasoaren bideoa ondoren. Sare sozialetan ez ezik hedabide hegemoniko batzuetan ere izan zuten oihartzuna ustezko informazioek. Laster jakin zen pertsona bakarrak egin ziola eraso herritarrari, eta argazkietako pertsonak ez zutela zerikusirik gertatutarekin. Bideoa bai, egiazko eraso batena zen... baina gazte zuri batzuek egina hila-beteak lehenago, kalean bizi zen pertsona baten aurka eta irain homofoboaren artean, Almeria hirian eta ez Torre Pachecoan.

Euskal Herrian ere baditugu informazio faltsuen zabalpen kasuak. ARGIAk Hernaniko (Gipuzkoa) eta Donostiako Martutene auzoko herritar banarekin hitz egin du (nahiago dute izena ez eman), ondoko bi kasuak hurbiletik ezagutu dituztenak.

Hernani, Gipuzkoa, 2025eko ekainaren 4a. Hernaniko WhatsAppetan bolo-bolo zabaldu zen ondoko mezua (jatorrizkoa gaztelaraz): “Abisua Hernanin: ez hartu berriz ere Karabeleko igogailua. Ez bakarrik. Moroak ikusten ari dira igogailuaren atzealdeko arbustueta ezkutatuta,


eta pertsona bakarrak behean igogailua itxoiten duenean, manta bat bota eta lapurtzen diote, lau ateratzen baitira. Hori egiten duten bigarren edo hirugarren aldia da". Egun berean Udaltzaingoak adierazi zuen horrelakorik ez dela inoiz gertatu. Informazio faltsuaren eraginez izan ote zen ezin jakin, baina egun pare batera udaltzainek birritan geldiarazi zuten kaputxatutako gazte zurien talde bat, gazte migratzaile batzuen kanpalekura bidean. Gazte kaputxatuak ez ziren eskuin mutur giro batean haziak, Hernanin nagusi den giro euskaldun aurrerakoian baizik eta, antza, sare sozialetatik asko elikatzen direnak. Herriko San Juan jaietan erasoak egongo zirela aurreikusita, *Arrazakeria-
ren aurka Hernanin saretu* lelopean manifestazioa deitu zuten herriko hainbat eragilek, jaien bezperan. Halere, hainbat talde-eraso larri eta antolatu izan ziren. Jaietako lehen egunean beste informazio faltsu bat ere zabaldutako zen herrian, ustezko bortxaketa bat salatzen.

"Askok handitu da beldurra arrazializatu eta migratzaileen artean"

Nayua Aduh

Martutene auzoa, Donostia, 2024ko ekaina. Auzokideen artean mezua: "Barkaitzegira iristen, zubia zeharkatzen duen tren-geralekuaren ondoan, etxe abandonatu handi bat dago, okupa moduan bizi diren moroz gainezka. Etxe abandonatu horren pareko errepidean semaforo bat dago, lau bat minutu irauten duena. Honako hau egiten hasi dira: zorura botatzen dira autoak geldi daitezen eta, gidariak jaisten direnean, atrakatu egiten dituzte. Kontuz Barkaitzegira bazoazte". Informazioaren jatorria ondoan dagoen Basozabal golf klubak bere bazkideei bidalitako mezuan zegoen. Klubak bazkideei "gomendatu" zien Martutene/Barkaitzegiko sarrera ez erabiltzea, "zonaldea arriskutsua" zelako: "Atrakuez ohartarazi gaituzte. Lurrean etzandako pertsonak istripu bat antzez-tuz, eta autoa gelditzean oldartzen dira". Martuteneko auzo elkarte Ertzaintzarekin jarri zen harremanetan, eta bi egunen ostean ofizialki jakinarazi zuen horrelakorik ez dela inoiz gertatu. Auzokideen

artearen izua, sumindura eta iruzkin arrazistak hedatuta zeuden ordurako.



Hernanin WhatsApp bidez zabaldutako mezua informazio faltsuarekin.

INSEGURITATEA ETA BELDURRA, DENONA

Gezurrek eta egi-erdiek asko eragiten dute, segurtasun errearen eta bere pertzepzioaren arteko arrakala areagotzen dute, eta batzuen erreminta politikoa dira, ez akatsak. Aldi berean, auzokideen arteko gatazkak eta delituak egon badaude gure herri eta auzoetan, eta nahiz eta fokuan dauden horiek bazterketarekin, pobreziarekin edo biografia latzekin lotura zuzena izan ohi duten, irtenbidea ez da ukatzea edo edozein portaera justifikatzea. Ez da lerro hauen helburua horien konponbideetan zentratzea, baina badira esperientzia interesgarriak Euskal Herriko auzo eta herrietan. Horren adibide bat jorratu genuen, ARGIAren 2918 zenbakiko *Bai, konpondu daitezke gatazkak komunitatea indartuz eta arrazakeria elikatu gabe* erreportajea.

Pertsona bat ez da arrazista delinkuentziaren aurka eta segurtasunaren alde hitz egin edo mobilizatzeko. Baina, kontzienteki egin edo ez, eta denok egiten dugu neurriren batean, inseguritatea soilik pobrezia loturiko delitu eta

portaera batzuekin lotzea klasista da, eta delinkuentzia arraza jakin batekin edo batzuekin lotzea, arrazista. Are arrazistagoa eta klasistagoa da hori egitea baina, aldiz, aberastasunarekin lotura duten delitu eta portaerak inseguritatearekin eta arraza zuriarekin ez lotzea. (Asmakeria diren) arrazen markotik irtetea komeni da, baina arrazaren arabera neurtzen badugu gizakiak zeinen arriskutsuak, lapurrak edo biolentoak garen, arraza guztiak mahai gainean jarrita behar du eta, hor, zuriok txapeldun.

Irauli dezagun fokua momentu batez: zenbat inseguritate eta beldur, zenbat segurtasun behar sortzen die pertsona arrazializatu oldarraldi arrazistak? "Askok handitu da beldurra" dio Aduh sahararrak, okerrera marokiarrek eta aljeriarrek pairatzen dutela azpimarratuta, eta horien artean gazteek. Fenomenoa ez dela berria azpimarratu du berriz ere Aduhk. Azaldu du pertsona arrazializatuak urteak direla dituztela normalduak "estrategia" zenbait: "Adibidez, dendetan sartzean argi uztea ez duzula lapurtzeko asmorik, edo kalean talde handietan ez joatea, pentsatuta horrek jendeari beldurra emango diola. Badituzte lagunak kua-drilla euskalduna eta arrazializatu edo migratua dutena, batzuekin edo besteekin egon asko aldatzen dira begiradak eta komentarioak".

Asteburuoro Irungo kaleetan "paseoak" ematen dituzte "auzokideen patruilek", Poliziaren onespenearekin

AUZOKIDEEN PATRUILAK

Maiatzaren erdialdeaz geroztik, asteburuero, Irungo kaleetan zehar "paseoak" ematen dituzte "auzokideen patruilek". Pixka bat lehenago, maiatzaren 5ean, ekimenaren antolatzaileek *Lo vimos en Irun* WhatsApp taldea sortu zuten. Irungo Antxeta irratia hedabideak ekimenaren ikerketa argitaratu zuen kanalean zabaldutako mezu, argazki eta bideoak aztertuta.

"Segurtasuna bermatzeko" eta "delituak prebenitzeko" aitzakien gibelean, gorrotoaren haztegi bat da taldea", azaldu zuen Antxetako kazetari Aimar



ANTXETA IRRATIA

Irungo auzokideen patruilak bultzatu dituen WhatsApp kanalean partekatutako hainbat mezu.



COLABORACIÓN CIUDADANA IRÚN FACEBOOK KONTUA

Auzokideen patruilak bultzatu dituen Colaboración Ciudadana Irunen irudia, herritik kartelak itsatsi dituzte irudi eta lelo berdinekin.

Lopezek. Hainbat gorroto mezu, iruzkin arrazista edo erasorako dei jaso zituen adibide gisara. “‘Moro’ edo ‘urdaiazpikoari alergiko’ deitzen dituztenekiko obsesio bat gailentzen da”. Kanalaren sortzaileen mezuetan arreta jarri zuen Lopezek: “Tal-dean administratzaile botereak dituzten zortzi lagunek eskuin muturretik hurbil diren ideologiak bultzatzen dituzte, ‘ideologiari gabeko herritar taldea’ direla behin eta berriz errepikatu arren”.

“Bortizkeria fisikoa” ez, baina patruilek burututako “intimidazio saiakera” ugariren zantzuak zeuden kanalean, Antxetaren arabera. “Gizon eta emakumeak jarraitu, inguratu eta atxiki izana kontatu izan dute azken asteetan”. Poliziarekin harremana laster egin zuten, antza. Maiatzaren 24an honakoa idatzi zuen kide batek: “Atzokoa oso ongi joan zen, Poliziarekin elkarlanean arituginen eta jada talde bezala eza-gutzen gaituzte”.

UDALAK ETA POLIZIAK KEZKARIK EZ

Maiatzean birritan eskatu zion Antxeta irratiak auzokideen patruilen inguruko iritzia PSEk EAJren babesarekin gobernatzen duen Irungo Udalarari, eta ez zuen erantzunik jaso. “Ekainaren 12an, Sanmartzialetako segurtasun protokoloa aurkezteko prentsaurrekoan, gaiari buruz galdera egin zitzaion Irungo Alkateari, Segurtasun ordezkariari, udaltzainburuari eta Irungo ertzain etxeko buruari”. Ertzainak soilik erantzun zuen: “Irungo auzoetan ‘paseatzen’ dabiltzan herritar batzuei ‘garrantzirik’ ematen ez dietela adierazi zuen”.

Patruilena ekimen “oso-oso kezkarria” da, ordea, Irungo Harrera Sareko kide Agirreren-tzat, eta are kezkarriagoa udalaren eta Poliziaren onarpena. Patruilek “pertsonarik zaurgarriengan beldurra” sortuko dutela dio. “Faxismoaren beste pausotxo bat da”, salatu du.

HIZKERA KOMUNITARIOA

Irungoa jauzia kualitatiboa da: patruilak iraunkor bilakatu dituzte; publikoak eta irekiak dira; eta Poliziaren zein instituzioen onarpena dute. Agian ezaugarri horiek mantendu, demokratikoki homolagarri agertu eta zabaltzeko as-

moarekin, dezente gozatu dituzte beren mezuak. Aipatu ikerketa ekainaren 19an argitaratu zuen Antxetak, eta egun berean ireki zuen Facebook kontua ekimenak, *Colaboración ciudadana Irun* (Elkarlan herritarra Irun) izenarekin.

Kutsu komunitarioko hizkera darabilte Irungo auzokideen patruilek, hiru dituzte lelo nagusiak: *auzo paseo eta akonpaina-menduak; banderarik eta kolorerik gabe; herriak salbatzen du herria*. Azken hori, ezkerak hainbestetan erabilia, eskuin muturrak erabili zuen Valentziako DANAREN ostean elkartasun brigadak antolatu zituenean. Gorroto mezuak eta esplizituki arrazistak alboratu dituzte oro har, mezu positiboak dira nagusi eta herritar akti-

azalduta. “Herritar zintzoki arduratuak, zer edo zer egin nahi dutenak... egongo dira. Orain askoz ere onargarriagoak dira, tarteka hankatxoak ikusten bazaie ere jende askorekin konektatu dezakete. Baina atzean beste gauza bat dago”.

HENDAIA, INSTITUZIOA BULTZATZAILE

Hendaian eskuineko herritarrek ez, herriko etxeak antolatu nahi ditu “segurtasuna” hobetu eta “delituak prebenitzeko” herritarren “elkartasun sareak”, hemen ere hizkera komunitarioa lagun. Herriko kontseiluak uztailaren 23ko osoko bilkuran onartu zuen “herritarren parte hartzerako protokoloa”. Horren arabera, herritarrek Polizia “ohartaraziko” lukete “edozein gertakari susmagarriren” aurrean. “Dispositiboak hiru helburu lituzke, udal gobernuaren arabera: herritarren artean ‘segurtasunaren kultura’ garatzea, herritarren eta polizien artean ‘harremana indartzea’ eta toki mailan delinkuentzia saihesteko prebentzio ekimenak sustatzea”, Kazeta atariak jaso zuenez.

Alderdi Sozialistak gobernatzen du Hendaian, Alderdi Komunistak ere babestu zuen ekimena, Hendaia Biltzen izan zen aurka bozkatu zuen talde bakarra. “Milizia herritar modukoak sortzea proposatzen diguzue”, salatu zuen Letizia Navarron taldeko bozeramaileak. Poliziaren asmoa protokoloa hasteko bi auzotan abiatzea da, proba gisara. Agirrek Hendaian du bizitokia, Irun militatzekoa, “izututa” dago. “Hau ere, Irungo auzokideen patruilen antzera, prefaxismoa da”.

NOLA BORROKATU ARRAZAKERIA?

Lehenik eta behin, etsipenean ez erori eta egiten dena baloratuta. Torre Pachecoko gertakarien harira mobilizazioa antolatu zuen Gasteiz Antirrazistak. “Uste genuena baino jende gehiago etorri zen, pozgarria izan zen, badirudi jendea kontzientzia hartzen ari dela”, dio Aduhk. Sorpresa positibo berdina hartu zuten Irungo Harrera Sarean auzokideen



Uztailaren 21ean irudiaren moduko pegatinak itsatsi zituzten Gasteizko hainbat meskitatan eta magrebtarren komertzioetan.

boen elkarlaguntzan jartzen dute fokua. Eta arrazakeria edo eskuin muturrekoak direla dioten salaketak indargabetzen saiatzen dira. Sare sozialetan hori ukatuz, zein epaitegiatar jotzeko mehatxuak eginez. Irungo Harrera Sareari mehatxu hori egin diotela adierazi du Agirrek, eta berdina azaldu diote ARGIAri Gipuzkoako SOS Arrazakeriatik.

Ekimena Irunen indartu ez ezik beste herri batzuetara ere zabaldu al daiteke? Baietz uste du Agirrek, ekimenaren kartela komertzio batean ikusi berri duela

patruilen aurka antolatu zuten mobilizazioan, Agirrek azaldu duenez.

Segurtasuna, inseguritatea eta delinkuentzia kontzeptuak borrokatzea garrantzitsua da, oso eraginkorrak baitaizkie arrazismoa bultzatzen ari direnei. Arbuiatu edo berrezaugarritzen saiatu? “Denok bizi nahi dugu seguru, ez diezaiogun oparitu hitza eskuinari, berrezaugarritu dezagun”, adierazi zion ARGIAri Gasteizko Errota auzo elkarteko kide batek, urrian bizi izan zituzten mobilizazio arrazisten harira.

Arrazakeria pertsona eta ingurune formalki antiarrazistetan lantzea ere ezinbestekoa da

Egiteko garrantzitsuena auzo eta herrietan egotea eta eguneroko lana egitea dela ematen du. “Egungo ezkerren ma-

rroi handiena hori da”, dio Agirrek: “Sarea, mikroan hasita, atarian, auzo mailako elkarteetan... badakigu antolatzen, badugu esperientzia, baina aldi berean, ez dakigu”. Sare horietan guztiontzako tokiak eta moduak egin behar dira, agerikoa ematen du baina praktikan ez dirudi horren erraza. “Guk askotan komentatzen dugu, oso ongi hitzaldi baterako deitzea... baina gonbidatu kaña batzuk hartzera ere, pasatu denbora bat gurekin. Ezkerrean asko ikusten dut, teorikoki oso ondo dena, baina egunerokoan harremanik ez pertsona arrazializatuekin”, dio Aduhk.

“Testuinguru horretan, diskurtso horiek erreproduzitzen dituen automatikoki arrazistatzat etiketatzeak ez du erakitzen komunitaterik, ezta lotura sendorik ere. Benetan auzo kohesionatuak nahi baditugu, entzute aktiboko eta elkarrizketa errealeko prozesuak behar ditugu. Entzuteak ez du esan nahi printzipioei uko egitea. Aitzitik, tresna politikoa da zentzu komunak eztabaidatzeko, aurreiritziak desmuntatzeko eta eraldaketarako bideak irekitzeko”, irakurri daiteke Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren *Indarkeria arrazista, zer dago atzean?* artikuluan. Ildo beretik, dio Agirrek: “Diskurtso kritiko baina integraziailea behar dugu, ulertu jendea gero

eta beldurtuagoa dagoela, enpatiaz jokatu”.

“Ulertzen dut [SOS Arrazakeriaren testuak] dioena”, dio Aduhk, “baina ikusten da zuri batek idatzia dela. Arrazakeria zuzenean pairatzen baduzu... Arrazializatuei beti eskatzen zaigu jatorrak izatea, pazienteak, sinpatikoak. Bortxa jasan dezakezu, baina ezin duzu maila berean erantzun”. Gasteiz Antiarrazistan “agresibitatearekin” jokatzan dutela azaldu du, pertsonak “interpelatuak” sentitzen direlako. Adibidez, morofobia hitza erabiltzea. Edo zuzenean galdetzea pertsona bati arrazista sentitzen den edo ez, eta zergatik, eta argi uztea gehiago edo gutxiago baina badela”. Zenbateraino enpatia, zenbateraino interpelazio zuzena? Nola uztartu? “Egoeraren arabera”, dio Aduhk.

Edonola dela, nork bere neurrian baina arrazakeria guztiok daramagu barruan, eta egungo olatuak denoi eragiten badigu, gure herrikide edo ekimen arrazista *besteekin* nola jokatu pentsatzeaz aparte, arrazakeria pertsona eta ingurune formalki antiarrazistetan lantzea ere ezinbestekoa da.

“Lehen pausua da ulertzea arrazakeria guztiz egiturazkoa dela, denarekin duela lotura, eta azkena pentsatzea nola eraikitzen dugun beste gizarte bat”, dio Aduhk. ●

Irail-urrikoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

“ ”

Ez dugu film feminista edo bolleroa egin nahi izan, baina gure esperientzia hori da eta islatu dugu”

Sara Fantova

Sara Fantova zinemagile bilbotarraren *Jone, batzuetan* filma zinema aretoetara helduko da irailaren 12an. Pelikula komunitarioa sortu du Kaskagorri eta Kranba konpartsekin, Bilboko Aste Nagusian girotuta baitago amodioa, jaia, gaixotasuna eta zaintza ardatz dituen istorioa.

 AITOR ASPURU

Irailaren 12an estreinatuko duzu ofizialki *Jone, batzuetan*, nola sentitzen zara?

Oso pozik eta urduri, estreinaldia hurbiltzen den neurrian. Izan ere, pelikularen aurreko faseetan –idazketa, grabaketa, post-produkzioa...– egotzen kontrola izan dut, gutxi gorabehera, baina orain datorren fasean, lehenengo aldiz, ez dut izango kontrolik eta filma ikusleena izango da, jendearena. Horrek apur bat urduritzen nau. Ez dut inoiz bizi izan prozesua eta espero dut jendeak gogoko izatea. Ezjakintasun horrekin urduri nago,

baina aldi berean pelikula partekatze-ko gogoak ditut.

Dena den, orain arteko harrera positiboa izan da jaialdietan.

Bai, orain arteko feedbacka oso positiboa izan da. Jaialdi eta erakustaldi ugari-tan egon gara eta gero geratu gara solasaldietan publikoaren iritziak jasotzeko. Oro har, jende orok izan du atsegin. Pelikula sortzen ditugu jendearekin partekatze-ko eta zerbait azaltzeko. Ikusleekin hitz egitea jakiteko zein den euren ikuspuntua, zelan jaso duten... Oso polita eta aberasgarria izan da.

Kontrola aipatu duzu, baina filma, gehienbat, Bilboko Aste Nagusian grabatu zenuten, zein kontrol maila izan zenuen?

Aste Nagusian grabatzeko sekulako prestaketa egin genuen. Bi urte lehenago etorri ginen taldeko batzuekin ikusteko jaiak. Nik argi neukan, baina, adibidez, argazkigintza zuzendariak edo soinukoek ikusi behar zituzten baldintzak. Halaber, aurreko urtean grabatu genuen txupinazoa zein Mari-jaiaren erreketak. Une oso txikiak dira, eta baliabide askorik ez genuenez, aurretik grabatu genituen eta plano ho-



riek sartu dira metrajea.

Esan bezala, prestaketa handia egin genuen, lasai geunden, eta hortik aurrera gertatuko zena zoria eta kaosa zen. Zentzu horretan positiboa izan zen, suertatu ziren kasualitateak eta anabasak ondo txertatu genituen eta pelikulan bukatu dute.

Esaterako, bagenekien txupinazoa grabatuko genuela, baina ez Aiora Renteriak egingo zuela pregoi hori eta Marijaiaren erreketan esandako hitzek pelikularekin zerikusi handia izango zutela. Finean, oso kaotikoa izan da, baina baita dibertigarria ere.

Kaosak eragindako pasarte asko geratu dira pelikulan?

Bai, bagenituen eszena asko idatzita, baina aldi berean bagenekien egitarauan agertu ahal zirela zenbait ekintza interesgarri. Bi egun erdi libre genituen horretarako, egitarauko irudiak hartzeko. Horietako bat izan zen Kaskagorriko Gazte Eguna eta egun horretan ez genuen idatzitako ezer grabatu. Egun osoa Kaskagorrin igaro genuen eta pelikulako neska kuadrillak parte hartu zuen bazkarian, bingo musikatuan, elektrotxarangan, txandak egiten... Gazte Eguna arrunt batean egiten dena

jaso genuen, nahiz eta azkenean elektrotxaranga bakarrik geratu den pelikulan. Akatu elektrotxarangen emanaldia Alde Zaharrean ez zegoen aurreikusita, baina filmak une batean auzio hori behar zuen eta agertu da zorte hutsagatik, tartea utzi genuelako horretarako.

Aste Nagusian izanda, jaiak protagonismoa daukate, baina baita gaixotasunak, zaintzak, sexualitate ez heteronormatiboek ere. Film feminista al da?

Uste dut pelikulak begirada feminista duela, baina ez da izan ondorio arrazio-



Sara Fantova eta Olaia Aguayo aktorea.

nala. Ez dugu pentsatu “pelikula feminista egin nahi dugu”. Gidoia idatzi dut Nuria Martin eta Nuria Dunjórekin gure esperientziatik, gure mundua eta zaintza ikusteko modutik... Ez dut esango inkontzientea izan denik, erabakiak hartu behar dituzulako, baina gure egiteko modua da. Ez dugu film feminista edo bolleroa egin nahi izan, baina gure esperientzia hori denez, hori islatu dugu.

“ ”

Bilboko Aste Nagusiak dauzkan arima eta autogestio izaera moduren batean pelikulan islatu ditugu

Aipatutako osagaien aldetik, zein pisu dauka bakoitzak?

Zaila da zehaztea. Pelikula idazten duzunean eta saldu nahi duzunean, labur azaldu behar duzu, eta zaila egiten zitzaidan. Sentitzen dut mundu asko dardela barruan. Jakina, protagonista Jone da eta zutabea, ondorioz, bere aitarekin duen gatazka da. Aita hiltzeak eta bakarrik geratzeak izutzen dute Jone. Eta

hori ezkututzen du eta ez du hitz egiten. Beste osagai guztiek parte hartzen dute neurri berean, jaia eta udako amodioa erabiltzen baititu etxetik ihes egiteko eta beste pertsona batzuek bera zaintzeko. Jaia, familia eta amodioaren artean oreka handia dago.

Kevin Iglesias filmaren ekoizleak asko azpimarratu du filmaren izaera komunitarioa. Ez dakit zein zentzu ematen diozun zuk, aintzat hartuta zuzendariak bere sinadura utzi nahi duela.

Jakina, niretzat zuzendaria da itsasargia. Jende mordoa dabil lanean pelikulan eta nire eginkizuna da guztien begiradek bide bera hartzea. Hala ere, filma egiteko jende asko behar da, baina kasu honetan, grabaketa taldeaz gain, oso garrantzitsua izan da nire auzoko sarea, lagunaren sarea, Bilboko Konpartsena... Zentzu horretan komunitarioa da.

Jone, batzuetan ezinezkoa litzatekeen jende hori inplikatu ez balitz. Grabatu genuen auzoko botikan, nire amamaren lehengusuen denda den Romaña Ultramarinosen, material guztia Harategi Zaharreko lokal batean gordetzen utzi ziguten, Ainhua Artetxeren amak laga zigun bere etxea grabatzeko, Kaskagorri eta Kranbak utzi zizkiguten euren txosnak grabatzeko eta egoteko... Horregatik esaten dut Bilboko Aste Nagusiak dauzkan arima eta autogestio izaera moduren batean pelikulan islatu direla. Laguntza

handia jaso dugu San Frantzisko, Alde Zaharreko eta Bilbo Zaharreko jendearen aldetik.

Komunitario izatea hautua edo beharra izan da? Bitarteko gehiago izanda berdin egingo zenukeen?

Ezin dut %100ean erantzun. Grabaketa abiatu baino lehen ez genituen lortu behar genituen diru-laguntzak eta hala ere erabaki genuen filma egitea. Dena den, nik uste dut ez zela izan baliabide faltagatik. Nahiz eta bitarteko gehiago eduki, nahiko nuke horrela egin eta auzoan grabatu auzokideekin. Erabaki hori hartu genuen diru-laguntzena jakin baino lehen. Talde txiki batekin egin nahi genuen oharkabea pasatzeko Aste Nagusian eta oso presente egon nahi genuen auzoan, jendea lasai egoteko, arrotzak ez izateko. Hortaz, uste dut erabaki bat izan zela.

Nolakoa izan da Bilboko Konpartsekin, Kaskagorri eta Kranbarekin lan egitea?

Izugarria. Bilboko Konpartsen bilera bakarrean parte hartu genuen. Hain zuzen, gure lotura Kaskagorriekin eta Kranbarekin zen eta haiek esan ziguten begirunez joan ahal ginela Bilboko Konpartsen batzar batera. Egin genuen eta guztiei iruditu zitzaion ondo.

Kaskagorri eta Kranbak asko irakatsi digute euren egiteko moduagatik. Oso eskuzabalak izan ziren euren espazio,

azpiegitura eta materialarekin. Kaskagorriin sartzen ginen etxean egongo bagina bezala. Grabatu genuenean eta orain. Alegia, olana erraldoia jarri digute filma iragartzeko, mahai ingurua antolatuta dute, trailerra proiektatu dute... Elkarlan oso aberasgarria izan da eta oso eskertuta gaude. Oso erraza izan da eta beti egon dira prest laguntzeko.

Egia da harremana nuela aurretik. Nire ahizpa eta bere kuadrilla osoa Kaskagorrikoak izan dira eta nire kuadrillako batzuk Kranbakoak dira.

“ ”

“Aste Nagusian grabatzeko prestaketa handia egin genuen, eta hortik aurrera gertatuko zena zoria eta kaosa izan zen eta ondo txertatu genuen

Nolakoa izan da lana aktoreekin? Batzuk ez dira profesionalak, inondik inora.

Bi aktore profesional daude: Josean Bengoetxea –Joneren aita– eta Ainhoa Artetxe –Joneren bikotekidea–. Besteek ez dute eskarmenturik izan aurretik. Bizkaia osoan egin genituen castingak Jone, bere lagunak eta Marta –Joneren ahizpa, Elorri Arrizabalaga– topatzeko eta urte osoa egon ginen Amets Zulueta eta biok horretan. Azkenean Jone topatu genuen espero genuen azken tokian. Hain zuzen, Ametsek deitu zien bere kuadrillakoei eta horrela agertu zen Olaia. Eurekin lan egitea oso erraza izan da. Kuadrillakoak lagunak egin ziren eta oso harreman ona sortu zen. Eta Olaia eta Elorriekin gauza bera.

Nik ez nien eman gidoia lehen egunean. Azaldu nien zer zen pelikula, inprobisazio luzeak eta oso orokorrak egin genituen. Adibidez, antzeztu behar zuten guztiekin geratu eta euren amodio istorioei buruz mintzatu, dena asmatuta. Apurka-apurka inprobisazioak zehazten joan ginen eta gero gidoia sartu nuen.

Ohiko prozesua alderantziz egin genuen. Lehenik eta behin harreman ona sustatu genuen guztion artean inprobisazioen bitartez eta gero gidoia landu. Ulertzeko eszena bakoitzak zer esan nahi zuen eta zer adierazi nahi genuen. Guztiak oso azkarrak dira eta oso erraza izan zen. Neskak jaietan zeuden eta testuingurua oso ezaguna egiten zitzaien. Elorri eta Olaia oso lagun bilakatu ziren eta horrek lagundu du.

Azken urteetan emakume zinemagile euskaldunen ahots oso indartsuak agertu dira. Esti Urresola edo Alauda Ruiz de Azua, esaterako. Harremana duzue?

Ez. Esti ezagutzen dut Tabakaleran egin nuelako Noka, euskal zinemagileentzako programa. Garapen prozesuan laguntzen dute eta Estik egin zuen aurreko urtean. Topaketak egin genituen aurreko urteko jendearekin eta oso ondo egon zen, baina horretaz aparte ez dugu sorkuntzari buruzko harremanik. Alaudarekin behin egin dut topo, baina ez dugu harremanik. Euren filmak oso gogoko ditut, baina beste belaunaldi batekoa naiz eta Bartzelonan ikasi dut.

Nire zinema munduaren testuingurua ezberdina da. Orain pelikularekin hasi naiz Bilbora itzultzen. Hori nahi nuen eta aitzakia bikaina izan da. Hemendik sortu nahi dut, euskaraz, eta hemendik azaldu


nire istorioak. Bilbo eta Euskal Herria dira nire nortasuna. Edonola ere, nirekin ikasi duen jendearekin sentitzen dut lotura handiagoa. Esaterako, nirekin ikasi dute Alejandro Marín, Celia Giraldo, Julia de Paz eta guztiok parte hartzen dugu besteen filmetan.

1980ko hamarkadatik zinema nahikoa sortu dute Euskal Herriari buruz –azken kasua *La infiltrada*–, baina maiz gatazka politikoari buruz eta kanpotik, herri mugimenduak zerbait exotiko, ilun eta arrotz izango balira bezala. Zure filmak beste begirada proposatu nahi izan du? Barrutik eta naturaltasunez?

Pentsatzen nuen zein pelikula ikusi nahiko nukeen nerabezaroan. Zinegoaken proiektatu genuen eta jendeak aipatu zidan faltan sumatzen zuela Bilbon gertatzea pelikula “normal” bat, baina hemengo gazteentzat. Hori batek baino gehiagok esan zidan. Egia da nik sortu nuela desira batetik, gehiegi hausnartu gabe, baina sentitzen nuen hemengo begirada batetik falta zela pelikula bat. Hemengo munduko onena dela esan gabe. Istorioa eta filma sortzeko orduan, niregan eta nire kuadrillan pentsatu nuen, zer nahiko genukeen guk ikusi. Zehazki, protagonistak txupinazoan daudela ikusi eta pentsatzea: “Geu gara!”. Hori bai pentsatu nuela, nire hurbi-leko jendea identifikatuta sentitzea. ●



Filmaren aurkezpena Bilboko Kaskagorri txosnan, abuztuaren 18an.



Jexux Mari Irazu

“Bizitzaren aldeko jarrerak bigarren planoan uzten du zarata”

Bertigo baten ostean, etengabeko txistu bat entzuten hasi zen Jexux Mari Irazu Muñoa (Larraul, Gipuzkoa, 1972) bertsolaria, bertso-eskolako irakaslea eta gai-jartzailea. *Tinnitus* edo *akufeno* deitzen zaie Irazuk entzuten dituen zaratei. Horrek egunerokoan daukan inpaktuaz eta aurre egiteko estrategiez mintzatu da. Bere esperientzia kontatu nahi izan du, besteena entzutea lagungarri izan zaiolako.

OLAIA L. GARAIALDE 📷 DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Norberak bakarrik entzuten dituen zaratak dira *akufenoak* edo *tinnitusak*, eta ez ditu kanpoko soinu iturri batek sortzen. Pertsona batetik bestera asko alda daitezkeen zaratak dira, baina Irazuren kasuan, beti presente dagoen soinu “karrankari” eta “altu” bat da. Mundu osoko herritarren %10-17k jasaten ditu, eta kasu batzuetan kroniko bihurtu daitezke: “Hasieratik esan zidaten normalena zela hor gelditzea. Hala ere, ez nuen argibide gehiegirik jaso”.

2020ko abuztuan, bertigo gogor bat izan zuen Irazuk. Ordutik, ezkerreko belarrian txistu bat entzuteaz gain, eskuinekoan burrunba bat entzuten aritu da sei edo zazpi hilabetez. Hori dela-eta sentsibiltate handia zuen, eta edozein zaratak, adibidez harrikoa egiteak, min fisikoa eragiten zion. Horri gehitu zitzaizkion migrainak, buruko mina eta beste gauza asko: “Koktelera moduko bat zen”. Egun ez ditu horiek guztiak sentitzen, baina txistua ez da eten.

“Isiltasun zalea naiz eta mendian ibiltzea gustuko dut. Etengabeko burrunbak hori guztia bukatu zuen”

Txistuarekin bizitzen ikasten ari da, baina kontatu du kosta egin zaiola: “Sentitu nuen patxada kentzen zidatela. Gainera, isiltasun zalea naiz eta mendian ibiltzea gustuko dut. Etengabeko burrunbak hori guztia bukatu zuen”. Txistuak ez du beti bolumen maila bera, kanpoko zarata barrukoa baino altuagoa denean, apaldu egiten dela dio. Horregatik, momentu intimoetan zein isiltasuna dagoenean indar handiagoa hartzen

du zaratak. Batez ere, gogorra egin zaio burrunba zein txistua aldi berean entzuteak: “Patxadarik ez izateak asko eragiten du fisikoki. Loan eragiten dizu, burua bueltaka hasten da, antsietatea sortzen zaizu, ezineraman handia da eta ez dakizu buelta nola eman”.

Denetarik probatu du; hala nola audifonoa kanpooka barrukoa baino gehiago entzuteko, medikazioa, akupuntura, osteopatia eta terapia. Ez daki bakoitzak zer ekarri dion, baina “gustura” gelditu da saiatu izanarekin. Esan duenez, gehien lagundu diona antzeko egoeran dauden pertsonen bizipenak entzutea izan da: “Niretzat lagungarria izan da ikustea honekin bizi den jendea existitzen dela. Estimatu dut entzutea jendeak nola egin duen aurrera. Horregatik kontatzen ditut gauza hauek”.

ONARPENAREN BIDEAN

Batez ere hasieran, asko kostatu zitzaion onartzea zarata horrekin bizi behar duela: “Bajan egon nintzen den-



bora askoan. Koktelera horrek guztiak bizitza pixka bat albo batera uztera arras-tatzen ninduen. Buklean sartzen zara, eta arreta guztia zentratzen duzu noiz gaindi-tu horretan. Azkenean bizitzaren parte bat alboratzen duzu nolabait, edo ez zara ko-nektatzen bizitzarekin eta sufrimenduan eta ezinegonean sartzen zara”.

Poliki-poliki, balantza beste aldera joan da. Esan du lanera itzuli, bertsoan hasi eta gustuko dituen gauzak egiten hasi zenean, txistua garrantzia galtzen hasi zela: “Bizi-tzaren aldeko jarrerak bigarren planoan uzten du zarata. Hor dago, baina ez diozu daukana baino garrantzi gehiago ematen”. Teoria argi duen arren, praktikara erama-tea zaila dela dio: “Aurreratu xamar noa, baina ez zait iruditzen guztiz onartu du-danik. Agian betirako da onarpen prozesu hori”.

Batez ere nekatuago edo indarrez jus-tuago dagoenean zaratak leku gehiago hartzen duen arren, argi du bidea onar-penean dagoela: “Nahi ez duzun arren, zure parte da, eta onarpen hori zure me-sederako, gauzak ikasteko eta sentsibili-tatea lantzeko bide bat izanen da”. Bere bizipenak batez ere lehenengo fasean daudenentzat lagungarri izatea espero du: “Animoak eman nahi dizkiet hasiera-ko fasean daudenei. Pasa behar duzuna pasa behar duzu. Pasa dezakezunez, horri heldu eta aurrera”. ●

Belarriko “akufeno” edo zarata etengabeari jarriak

(Jexux Mari Irazu, 2022)

- 1 Luzeak, motzak edo zabalak maiz mitoz elikatuak onak, eskasak, finak ta gorrak guztiak delikatuak ageriko nahiz ilepekoak, piercing-ez murtxikatuak... Sonatuetan sonatuenak belarri musikatuak.
- 2 Suge txistu fin hozkalaria edo erlauntza burrunba ekaitz aldiko haize soinu ta, pitido, zumbido, zunba. Edozelango Lekeitioak ta beste hainbat oihartzun-da Ze ezberdina dena kanpotik edo barrutik entzunda.
- 3 Barne ahotsik ba ote nuen kezkaz eta jakin-minez Orain atsegin ez dela eta larri isildu ezinez Bere hizkuntzan nabilelako nola Txirrita latinez unibertsoa hizketan eta ze esan nahi didan jakin ez.
- 4 Federik balitz zientzian eta alternatiben praktikan estimatzen da ez izatea zeinek lagundu faltikan denak du bere eragin ona konfiantzaren argitan Soinua berriz jaisten ta jaisten, belarrarian ez, patrikan.
- 5 Audifonoak omen direla zarata goxatzeko gai zenbait pastilla lagungarriak agudoak grabetzen, ai (sic) akupuntura, osteopatia yoga, energiak, zernahi eskura izanda nola ez probatu? Sendabelarrak ere bai!
- 6 Desesperatu ta noiz joango nor ez da borrokan jardun tonu berean jarri artean bihotz, belarri ta garun bizitzarako irakaspena? Nahiz ta ez datorren leun... batzutan izan behar dugula nahi ez dugunaren lagun.



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Bihotza, bizitzarako indar motor gisa. Eta eskua, zure esku dagoenaren isla”.

KOLABORATZAILEAK

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Elkarrizketatuarekin denbora asko hartzen duen kazetaria da Elustondo. Argazkiok horren lekuko.

Elustondorena estilo kontua da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Marraskilaria ikusleak bere sinadurarekin identifikatuko duen marraren bila joaten den bezala, kazetariak ere topatu nahi izaten du bere estiloa eta batzuk lortzen dute, idazkerarekin, galderak egiteko moduarekin, irakurleak egilea azkar identifikatzea. Miel Anjel Elustondo (Azpeitia, 1958) da horietako bat eta ARGIA urteak daramatza, ondo ezagutzeko estilo propioan, elkarrizketak egiten. Zein dira bere gakoak?

Hitz egiten utzi eta jendeari aditzea. Bat. Elkarrizketatuaren bidean ibiltzea gustatzen zaio, ez elkarrizketatua bere "galderen sarean harrapatzea". "Galdera jakin batzuk egin beharra dago, jakina, baina ez dut inor zepoan harrapatzeko asmorik", zehaztu du. Elkarrizketatuaren bidean ibiltze horrek inori itxura


eman diezaioke inprobisatzen ari dela elkarrizketa, gutxi prestatuta eraman duela..., "nire koadernoak testigu, elkarrizketa-galderez beteta ditut koaderno denak", dio baina, irribarrez.

Elkarrizketak prestatzea. Bi. Hain justu horixe azpimarratu du kazetariak: "Ez dakit zein den elkarrizketak egiteko nire modua, baina bai dudan modua eta lehenik prestatuta da, dokumentazio lana". Hark esanak, idatziak edo lehenago eginak dizkioten elkarrizketak aztertzen ditu enkontrurako, "noiz zorrotz azpimarratzea, noiz axaetik gainbegirtzea", gehitu du. Hori eskuetan joaten da elkarrizketatuaren hitzak aditzera, haren dantzaz murgiltzera.

Elkarrizketatuen aukeraketa. Hiru. Pertsona "arruntak" ekarri dizkigu sarri

lehen lerrora, jende heldua. Batzuetan berak aukeratuta, bestetuetan ARGIAk edo beste jende batek proposatuta. "Gizonezkoa bezainbat, emakumezkoa elkarrizketatu nahi izaten dut, inork baino gehiago bizi izan dituelako mundu honetako penak eta nekeak, inori ez bezala ukatu diotelako ahotsa, eta hitz egiteko ere gizonezkoak baino pudore handiagoa duela. Jende heldua elkarrizketatzen dudala, sarri? Inork baino gehiago daki jende adinekoak, hamaika ikusi eta bizitakoa da".

Elkarrizketatuarekin denbora asko hartzen duen kazetaria da Elustondo. Prestaketa lanean, noski, baina baita elkarrizketaren unean ere. Eta hori emaitzan nabari da. Galdera klabeak egiten baino, haute-maten dugu sutondoko lagun edo familiar-teko solasaldi bat, patxadazkoa. ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URRANGA**

Tamainak garrantzia duenean

Duisburg (Germaniako Erromatar Inperio Santua), 1569. Gerard De Kremer (1512-1594) geografo, matematikari eta kartografo flandriarrak, Gerardus Mercator izen latinizatuaz ezagunak, proiektzio kartografiko berri bat diseinatu zuen. Proiektzio mota zilindrikoa zen, ekuatorearekiko tangentea. Horrek esan nahi du meridianoen arteko distantzia ez dela aldatzen poloetara hurbildu ahala. Ondorioz, paraleloen arteko distantzia geroz eta handiagoa da Ekuatoretik urrunduz gero.

XVI. mendean itsas nabigazioa indar handiz ari zen garatzen; ontzigintza eta nabigaziorako tresneria nabarmen ari ziren aurrera egiten, eta kartografiak ezin zuen atzean geratu. Mercatorren proiektzioa funtsezkoa izan zen horretan; meridianoeak eta paraleloek angelu zuzenezko kuadríkula osatzen dute Mercatorren munduko mapan, eta horrek asko erraztu zuen itsasbideak marraztea.

Baina alde txarra ere bazeukan Mercatorren mapak: kontinenteak erabat desitxuratzen zituen. Ekuatoretik hurbil dagoena askoz txikiagoa ageri da eta poloetatik hurbil dagoena, aldiz, askoz handiagoa. Esaterako, Frantziak eta Angolak tamaina beretsua dute Mercatorren munduko mapan, Afrikako herrialdea Europakoa baino ia hiru aldiz handiagoa denean. Alaskak eta Brasilek ere antzeko azalera dute mapan, Brasil bost aldiz handiagoa izan arren. Baina alde deigarrie-



Mercator proiektzioa erabiltzen duen 1902ko munduko mapan garbi ikusten da kontinenteen desitxuraztea.

na Afrika eta Groenlandiaren artekoa da: Mercatorren maparen arabera, azalera berdintsua dute, benetan Afrika 14 aldiz handiagoa izan arren.

Baina Mercatorren nahiz garai hartako erabiltzaileen interesa itsasoan zegoen, ez lehorrean, eta mapa desitxuratua oso praktikoa zen. Gainera, Ekuatorearen eta poloen arteko erdibidean egonda, Europa ahalguztidunari deformazioak ez dio gehiegi eragiten.

Eta, eurozentrismoak eraginda, Mercatorren munduko mapa okerra nagusitu da azken 450 urtetan. Mapa zuzentzeko

ekimenek indar handia hartu dute azkenaldian. Correct the Map ekimenak, esaterako, Afrikako Batasunaren babesa lortu du berriki –ekimenak 2018an diseinutako Equal Earth proiektzioaren erabilerabultzatzen du-. Ekimenaren arduradunen esanetan, “450 urtetan Afrikaren eta munduaren ulermena mapa erratu batean oinarritu dugu. Maiz tamaina boterearekin parekatzen den mundu honetan, Afrikaren benetako eskala itxuragabetzeak bere garrantzia geopolitiko eta ekonomikoari buruzko kontzeptu kaltegarriak indartzen ditu”. ●



PORTABLE ANTIQUITIES ESCHIME

Vikingoak eta musulmanak tratuan

Bedale udalerrian (Yorkshire, Ingalaterra) altxor bikingo bat aurkitu zuten 2012an. *Archaeometry* aldizkarian argitaratu dutenez, berriki altxor horretako zilarrezko piezak aztertu dituzte. Zehazki, berunaren eta oligoelementuen isotopoak aztertuz, zilarren jatorria zein den jakin ahal izan dute eta, besteak

besteak, Abbastar Kalifa-herriko –egungo Iran eta Irakeko– dirhamen zilarra erabili zutela ondorioztatu dute. Horrek esan nahi du beti erasoan eta harpilaketan irudikatu ohi ditugun bikingoek merkataritza harreman baketsuak ere bazituztela inguruko nahiz urruneko lurraldeekin. ●

MINGAIN URDINA



JOSEBE BLANCO



Odolustea uztailaren 10ean hasi zen. Hamar buru hil zaizkigu harrezkero: hazarkume bat, ahari bat eta zortzi ardi. Odol analisisiek baieztatu dute mingain urdinen gaitzaren ondoriozko heriotzak izan direla denak ere.

Uztailaren 12an Iturbeko belardian ardi bat aurkitu nuen, hilda zegoen. Antzuen tropan beste bat falta zen.

Uztailaren 13an itzuli ginen. Falta zen ardiaren hezurak eta azala ikusi genituen. Putreek janda.

Xoxo aharia izan zen kamioiak eraman zuen lehena. "Ederra aharia, ze pena!", esan zuen gidariak. Halaxe zen, ederra. Uztailak 14 zituen.

Biharamunean, kamioiak beste bi eraman zituen. Bi urtekoak.

Uztailaren 16an, hiru buru eraman zituen kamioiak. Hazarkumea eta beste bi ardi -batek bi urte zituen eta besteak urtebete-.

Uztailaren 20an hiru urteko ardia hilda aurkitu genuen etxe gaineko belardian. Ordubete geroago, putreek garbi utzi zuten.

Uztailaren 21ean bi urteko ardia eraman zuen kamioiak.

Uztailaren 10ean hasitako amesgaiztoak hamar ardi eraman ditu. Hau idazten ari naizela, bost ardi ditugu gaixo. Itxura batean, bik aurrera egingo dute. Gainontzekoek ez dute itxura onik, egia esan.

Neke izugarriak pisua du, bihotza

zanpatzeraino. Nekeari beldurra, ezjakintasuna, tristura, etsipena, frustrazioa, porrota eta mina batzen zaizkio. Denen artean odolik gabe utzi dute artzainaren bihotza.

Uztailaren 17an etorri zen Ane, Biolurko albaitaria, artalde txertatzera. Mingain urdinaren 8 serotipoaren kontrako txertoa jarri diegu. Badakigu 38 eta 42 egun bitarteko epea behar duela botikak erabateko babesa emateko, baina bitarte horretan, egunak pasa ahala, gaixotzekotan, sintomak arinagoak izango dira.

Nahiz eta odolusteak jarraitu, txertaketak arnasa eman digu.

Dirudienez, gaitzaren 3 serotipoa Iparraldetik eta Kantabriatik dator; 8a baino hilgarriagoa. Dagoen giroa egokia da eltxoarentzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak horren kontrako borondatezko txertaketa kanpaina abiatu du. Bizitakoa bizita, txertatuko ditugu, ezin bihotza odolustentz utzi... Txertaketa ahalik eta lasaien joateko, eta artaldea ezagutzen duenez, nahiko genduke Anek egitea. Ea Aldundiak zer erantzuten digun.

Baten batek galdetuko dio bere buaruari zergatik ez ote genuen artaldea aurrez txertatuta. Hemen erantzuna: Gipuzkoako Foru Aldunditik derrigorrezko txertaketa urtarrilaren 15ean eskaini ziguten, gure erditze sasoi bete-betean, eta, abortu arriskuak zirela eta, esan genuen udaberri aldera etortzeko. Gainera,

bektore lanak egiten dituen eltxoa zazpi gradu azpitik hiltzen da; beraz, arriskurik ez. Gerora, udaberria etorri zen, ordurako txertaketa borondatezkoa zen, eta kanpainaren zurrunbiloan ez ginen akordatu inora deitzearekin. Inork ez zigun deitu.

Zergatik kontatu hau guztia?

Ezer baino lehen, artzain bezala dugun erantzukizunagatik. Ez genduke nahi beste inork horrelakorik bizitzetik. Izan ere, orain arteko prozesuak sekulako higadura emozionala ekarri digu. Eta, noski, galera ekonomikoa ere bai.

Hau kontatzeko bigarren arrazoia zeu zara, irakurle, Bizi Baratzea orrialdeetara gerturatzen zaren hori. Jakin baitakit gure artaldearen eta etxearen martxa jarraitzen duzula, eta senak eskatzen du gauzak aldrebestuta daudenean ere umiltasunez onartzea, zintzo.

Bada, horrelaxe, bihotz zanpatu hauek osasuna eta poza opa dizkizute.

Post scriptum: Uztailaren 31n hil zen azken ardia: 35344. Putreek jan zuten. Orotara, 11 animalia hil zitzaizkigun. Gaur, abuztuak 26 dituen honetan, GFAko albaitaria etorriko da 3. serotipoaren kontrako txertoa jartzera. Beldurra itzuli da etxera: zer ondorio izango ditu txertoak ernai dauden ardiengan? Beldurra baino latzagoa da, ordea, bihotz zanpatuak ponpatzen duen odol apurra rekin bizitzea. ●

A ZE FAUNA!

BURMUINA TXIKITUTA
BIZIRAUTEN DUEN ÑIMIÑO

IRATI DIEZ VIRTO
ARANZADIKO KIDEA

Bizitza azkar pasatzen dela entzun eta esaten dugu maiz. Hala ere, gizakiok urte dezenteko bizi-itxaropena daukagu. Hainbat urte izan ohi ditugu ongi garatu, bizi eta ugaltzeko. Badira, ordea, hori guztia denbora askoz ere laburragoan egin behar duten gu bezalako ugaztunak: satitsuak.

Satitsuak animalia talde bat dira, xaguen antzekoak baina satorrekin ahaidetuak. Matur luzeko ugaztun txikiak dira, eta ez dira zailak ikusten belar edo orbel artean ihesi. Hainbat satitsu espezie ditugu Euskal Herrian, eta bi taldetan banatzen dira: hortz zuriko satitsuak (*Crocidura* generokoak) eta hortz gorriko satitsuak (*Sorex* eta *Neomys* generokoak).

2024. urtean argitaratutako ikerketa batek satitsu buztankarratuaren (*Sorex araneus*) bizi zikloa ikertu zuen. Satitsu hori ez da ohikoa Euskal Herrian, Pirinioen ekialdean bizi da gehienbat, baita Europako beste herrialde batzuetan ere. Baina ikerketa horretan lortu zituzten emaitzak ikusgarriak izan ziren, eta batek daki gure lurraldean aurki daitezkeen genero bereko beste satitsu batzuen kasua, satitsu txikiarena (*Sorex minutus*) edo Millet satitsuarena (*Sorex coronatus*), antzekoa izango den.

Satitsu buztankarratuaren bizi-itxaropena 18 hilabetekoa da, gutxi gorabehera. Uda aldera jaiotzen da, eta hurrengo urteko udazken edo negura arte bizi da. Tartean, negua du biziraupen erronka. Halako ugaztun txikiak (5-10 cm arteko gorputza dute) zailtasunak izaten dituzte hilabete hotzetan aurrera egiteko. Beste ugaztun batzuek migratu egiten dute eremu epelagoetara, edo hibernatu beste hainbatek.



Satitsu txikia (*sorex minutus*).

Satitsu buztankarratuak, ordea, beste estrategia bat du; bere burmuina, buruhezurra, eta organo gehienak txikiagotzen ditu negua pasatzeko. Eta hurrengo udaberrian berriro berregiten du dena.

Satitsu guztiek, oro har, beharrian energetiko oso handiak dituzte. Horiek asetzeko, egun guztia jaten pasatzen dute, eta egun bakar batean bere pisuaren %80-90 jan dezakete. Neguko hilabeteetan, ordea, ez dute eskuragarri behar duten elikagai guztia, baina ez dute denbora galtzerik migratzen edo hibernatzen; urte bakar bat biziko dira eta. Horren ordez, gastu energetiko handia duten ehun eta organoak murrizten dituzte, burmuina kasu (masaren %26 murriztu dezakete). Estrategia horrekin, aktibo mantendu daitezke urte osoan zehar.

Satitsu buztankarratua izan da protagonista aipatutako ikerketan eta oraingoz, negua pasatzeko estrategia hau satitsu espezie horretan soilik ikertu da. Baina esan bezala, genero bereko beste satitsuek bizi-ziklo antzekoak dituzte, eta negu gorrian bizirautea lortu behar dute. Horrela funtzionatzen du zientziak, eta galdera baten erantzuna lortzeak beste hamaika sortzen ditu beti. ●

SATITSUA

Sorex generoa

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna / *Sorex* generoa.

NEURRIA: 5-10 cm arteko luzera eta 3-18 g arteko pisua.

NON BIZI DA? Hosto erorkorreko basoetan, baita soro, larre eta putzuen mugetan ere.

ZER JATEN DU? Batez ere intsektuak, intsektuen larbak, lur-zizareak, barraskiloak eta beste ornogabe batzuk.

BIHOTZ BIZKORRA: Satitsu baten bihotzak 800 eta 1.000 aldiz taupa egiten du minutuko, bere metabolismo bizkorren adierazle.

BABES MAILA: "Kezka txikiko" katalogatua.

PAGATZA, BIZITZA, SUTZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC-BY-SA

Ez naiz aparretsia, orraztearen aparretsia, ezta gutxiagorik ere. Baina ikasturte berriari ekiteko, zer den ez den, lakarra zuzen-zuzen ederk asko eginda nator zuregana.

Aurten gurean sagarretan bai urtea izaki, sagardoaren etorrerarako pres-taketa lanetara emanak gaude oraintxe. Aurretik joan dira tomatea pototan sartzea, atunak ontziratzea eta urte pare baterako behinik izango den su egur pilak eraikitzea. Aurtengo egurra, Aralar aldetik jaitzitako pago adaki ederrak (*Fagus sylvatica*).

Hori baino lehen, gure eskuetara hurbildu aurretik makina bat lohadar eta muturrek ukituko zuten pago horien azala, egurrazala. Esku, hanka, atzapar, erpe, minzdun, karraskari hortz zorrotz, ardien eta behorren aurreko hortz erskon, hegaztien moko fin, piko eta mosko birabarkin. Aberedi aberatsa du Aralarrek guk erreko dugun pagoaren pagatzari esker. Zenbat animaliak muturraren mutur-mintz hezearekin usaindu eta miatu ote dute enborraren azal zurizta, jakina, buskan? Zenbat basakatuk zorroztu ote dituzte aisialdixoren batean azazkalak, esku ezkerrekoak eta eskuinekoak, goitik behera ra-ra, arrast-arrast azalaren azala ebakiz? Zenbat azkonar arrek egin ote diote pixa erreka pagoaren enborraren motzondoari, aurrekoen errekaaren usaina ezabatu eta berearen hormonak

gailenduz kasu zipitzik ere egiten ez dion eme hori erakartzeko itxaropen etengabe zapuztua behingoz irauli asmo nekaezinean? Zenbat basurdaldek inguratu ote dute enborra, elkarr txanda eman ezinik, uxartuz lurrazala, larruazala egurrazalarekin marruskatuz, lepaatzean eta isats gainean pilatutako akainak kentze aldera, eta bide batez azkura arintzeko lokatz putzuan itsatsitako basarekin enborra marraztu eta familiaren kastaren bafa aski ezaguna erantsiz?

Bizitza lotu eta aberatseko egurrazal horren gainazalean ere ez da falta jostagarririk. Adarrak hautsi eta ondo sendatu gabeko zaurietan usteldurak sortzen dituzte onddoek eta hor etorriko dira txori eta muxarrak, habi gozoak eginez. Intsektuen ihauteria ere etengabekoa da, tamaina, mota eta itxura guztietakoa: inurri, zorri, tximeleta, sits, kotxinila, kakalar-do, pipi, euli, eltxo, amona mantangorri, liztor, erlastar, marisorgin, sorgin-orratz eta abar. Motzondoaren beheko barrenean, eguzki errainuetatik ihesi uhandre, apo eta igelak, arbolaren hezetasuna zaintzen. Inguru hezetik eta lurpetik datorkio zuhaitzaren herri oso horri ura. Pagoari lurreko lagunak eskua luzatuko diote ur horren bereganatzeko. Zizare eta antzeko makroorganismoen tartean mikroorganismoak dira lagunkoienak, batez ere onddoak. Egin dezagun kontu: soilik pagoak berak eguneroko bizimoduari

eusteko 400 litro ur behar ditu. Egunerok! Ur hori bilatu, topatu, sustraietan ipurdira ekarri eta azken hostoraino ponpatu. Egunerok! Makina galanta da. Makina baina bizia, bizitzaren oinarri eta euskarri; bizitzaren doinuaren dantzaren kaosaren eman-hartuaren amodioaren lurrinaren zorabioaren eroaldiaren ardatza. Bizitzaren heriotzaren trenkatzea eta txikertzea.

Gero etorri zen mendi ingeniaria eta panaldu zuen pagadia. Berak panalaren ebakia sentitu zuen eta dardaizo ezezagun batek bere kizkin guztietako kirioak piztu zituen; bizilagun guztiek sumatu zuten eta une batez den-denak karranpa orokor batek jota bezala paralizatu ziren, sorgor. Abuztuaren ilgorarekin motozer-raren epaia, garabidun kamiona eta gure etxea ezagutzea di-da batean etorri ziren. Gurean lehenengo trontzatu, gero pitzatu eta atzetik txukun-txukun pilatu genuen.

Guri azala berotuko digu neguan, baina barrenak?

OHARRA: *Pago bakar baten fotosintesia* izeneko datuak Herbeheretako PPH elkartearenak dira, hango Van den Berk mintegiak 2008an argitaratutakoak: 100 urte, 20 metro garai eta 12 zabal den pago batek 600.000 hosto ditu, 1.200 m²-ko azalerarekin. Egunerok 400 litro ur eta 18 kg CO₂ hartu eta hamar lagunak behar duten oxigenoa eta berak jateko 12 kg azukre sortzen ditu. ●

GIDARI ARTZAIN ESKOLA

ARTZAINEN HURRENGO BELAUNALDIAREN BILA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Historikoki, artzaintzari eta abeltzaintzari guztiz lotuta egon den bailara da Erronkaribarrekoa, baina azken hamarkadetan nabarmen eraldatu da eta turismoa bihurtu da jarduera nagusia. “Ekonomia horrela aldatu da, eta hamarkadaz hamarkada ardi, behi eta behor kopurua ikaragarri gutxitu da, horrek dakartzan gaitzekin: lehen sektorearen egoera zaila, paisaiaren galera, suteetarako arriskua...”. Eneko Egiguren Gidari Artzain Eskola proiektuko arduraduna da. Sektorearen egoeraz eta etorkizunaz kezkatuta, duela hiruzpalau urte zer-bait egin beharra zegoela erabaki zuten, eta artzain eskola martxan jartzeko lanean hasi ziren, besteak beste.

NAFARROAN ARTZAIN ESKOLARIK EZ

Erronkaribarreko batzordeburua zen garaian Egiguren, eta abeltzaintza komisioko lehendakariarekin batera hainbat artzain eskola bisitatzearekin zioten. “Katalunian izan ginen, Oñatiko Gomiztegiko eskolan, Aragoiko Sant Chuan de Planen... Pirinioetan artzain eskolak daude han-hemen, eta nola da posible Nafarroan ez existitzea?”, galdetzen zuten. Artzain eskolak ikustearrekin batera, Erronkaribarreko abeltzainei bideratutako formazioa ere egin zuten 2023an, haien ezagupenak transmititzen irakasteko. “Eskualdeko zortzi artzainek eta abeltzainek eman zuten izena, eta formazioa jaso eta gero, Aragoiko La Estiva artzain eskolatik



ikasleak jasotzen hasi ziren praktikak egiteko”, azaldu du.

2024an beste jauzi bat eman zuten: Aitalde Elkartea sortu zuten Egigurenek eta formazioan parte hartu zuten zortzi abeltzainek, proiektuari entitate juridikoa emateko. “Azken urte eta erdi honetan, berriz, artzain eskola proiektua aurrera eramateko lantaldea osatu dugu: formazio ibilbidea lantzen ari gara, 800 orduko hezkuntza plana osatzen hainbat modulurekin eta balore finkoekin”, dio. Marengo Bordako Alba Ripodas artzain eta biologoa eta Jose Berrotz Ezkarotzeko albaitaria batu zaizkio hezkuntza plana osatzeko lantaldean.

EREDU ESTENTSIBOA ETA AGROEKOLOGIKOA ARDATZ

Norabide argian ari dira lanean artzain eskolaren bultzatzaileak: abeltzaintza estentsiboaren eta agroekologiaren alde, inguruari lotua egon den eredia bul-

tzatu nahi dute. “Hemen beti egin den maneja landu nahi dugu, baina gaur egungo erreminta eta metodologiekin, arlo teknologikoari ere begiratuta”. Hainbat modulu landuko dituzte artzain eskolan: abeltzaintza, erreminta teknologikoak, alor psikologikoa, itxiturak, motozerra, soldadura... “Azkenean, hainbat funtziotako hezkuntza eskaintza izanen da, instalatu nahi duenak ezagupen anitzak beharko baititu”.

Erronkariko eskola zaharra berritu eta eskolako aularioa prest dute honezkero, eta helburua da 2026ko urrian lehen promozioarekin hastea. “Ea nola doan dena, denboraz nola iristen garen... azkenean, finantziazioaren alorrak asko baldintzatzen du proiektua”, adierazi du. Aurten, Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso dute, baina etorkizunera begira finantziazio bide finkoak bilatzea ezinbestekoa izanen dela dio. Informazio guztia gidarieskola.com webgunean topa daiteke. ●

“ ”

Jainkorik gabeko belaunaldia gara, eta bi aukera eman dizkigute: kontsumoa eta lana

Aixa de la Cruz

2020ko Euskadi Literatura Saria irabazi zuen *Cambiar de idea* (Ideiaz aldatu) autofikzio feministarekin. Emakume idazleek literatura kanon patriarkalera egokitu beharra kritikatu zuen liburu horretan. *Todo empieza por la sangre* (Dena odoletik hasten da) bere seigarren eleberriarekin askatu da presio horretatik; askotariko maitasun harremanak ditu ardatz, erlijiosoa barne.

tzen didate ea autobiografikoa den, eta ez. Baina idaztea oso pertsonala da beti: barruak mugitzen ez badizkizu, ez du funtzionatuko.

Ane Labakak berriki idatzi zuen *Berria-n* emakume idazleei etengabe galdetzen zaiela ea haien eleberriak autobiografikoak diren.

Gizonei ez zaie galdetzen ez delako interesatzen. Gurekin morboa ematen du. Nahiko zitala da.

✂ JUNE FERNANDEZ 📷 PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC-BY-SA

Psikiatriak patologizatzen dituen ondoez jatorri sozialak aztertutuen Aixa de la Cruzek (Bilbo, 1988) *Las herederas* (Oinordekoak) eleberrian. Halaber, *Todo empieza por la sangre* (Dena odoletik hasten da) bere azken obran osasun mentalaren hauskortasuna presente dago, baina bilaketa intimo bati lotuta: behin eta berriro saiaturiko da Violeta hutsune existentziala maitasunaren bidez asetzen, izan maitasun erromantikoa edo espirituala.

Mugimendu handiko eleberria bateratzen duen elementu sinbolikoa da odola: umetan laguneren arteko paktuetan elkartrukatzeko dena, abortuetan galtzeko dena eta banpiro nartzisistek xurgatzeko dutena. Bere zortzigarren liburua da –bost eleberri, ipuin bilduma bat eta saiakera bat atera ditu aurretik–. Lehena 20 urterekin argitaratu zuen, eta oraindik ere kritika patriar-

kalak gaztetasunari lotutako kliseak darabiltza bere lana deskribatzeko.

Liluratuta zabilta psikoanalisiarekin. Eraginik izan al du liburu honen idazketan?

Bai. Lehen aldia da pertsonaia bakar baten ibilbidea idazten dudana, eta lanari ekin diot ordena kausal batean, ez kronologikoan. Terapiaren zure bizitza kontatzen duzunean ere, orainetik hasi, orainak iraganera eraman, eta iraganetik orainera itzultzen zara. Bestetik, idazketa intentsua izan da niretzat, terapia saioen moduko nekea utzi didana. Violeta protagonistaren nerabezaroa irudikatzeak nire nerabezaroa gogortzera ninderaman, eta umetan nire amarekin izandako dramak berrikusi ditut, ni ere ama naizen honetan. Gauza hauek komentatzen ditudan bakoitzean galde-

Badakit *Evanescente* izenburua ipini behar zeniola hasiera batean. Biki ebanescente bat izan zuela jakiten du Violetak, eta Paulekiko duen obsesioarekin lotzen du.

Nobelarako mito klasikoekin lanean ari nintzela, lagun batek kontatu zidan bere esperientzia: helduaroan jakin zuen biki bat izan zuela, baina jaio aurretik hil zela. Platonen mitoaren korrelatu biologizista iruditu zitzaidan: bizirik iraungo duen biki galera-sentsazioarekin jaioko da, dolurik egiteko aukera gabe, eta bizitza emango du hura osatuko duen norbaiten bila.

Violetak uste du hori izan daitekeela bere hutsune existentzialaren jatorria.

Sistema neoliberalak konbentzitu nahi gaitu gure ondoezek kausa jakin bat dutela, eta gure erronka dela gurekin bat datorren marko diskurtsiboa aurkitzea:

dela karta astrala, dela bisexualitatea, dela diagnostiko psikiatrikoa... Aitzitik, ondoezaren azalpenak konplexuagoak dira: kausa ia guztiak sistemikoak dira, baina asko biografikoak ere bai. Adiera bakarreko azalpenak kapsulatzen dizkigute, produktuak erosi ditzagun: "Ez al zaizu ondo iristen *prana* burmuinera? Egin ezazu gure kundalini yoga ikastaroa".

Kritikak esan ohi du zure belaunaldiko idazlea zarela.

Bat al zatoz?

Nazkatu samar nago. Ez dakit zenbat urte bete behar ditudan hori entzuteari uzteko. Mundu guztiari eragiten dioten egiturazko arazoak, hala nola etxebizitzaren alokairuaren arazoak, belaunaldi baten afera gisa aurkezteak sistemaren ardura lausotzen du. Modu horretan, unibertsatasuna eta gizarte osoa interpelatzeko gaitasuna kentzen digute.

Bilboko Bidebarrieta liburutegian eleberriaren aurkezpenera hurbildu zen jendea ikusita –jende oso heldua

eta asko gizonak– esan daiteke zuk bai lortu duzula gizarte osoa interpelatzea.

Oso polita da. Literatura gure enpatia eta identifikazio gaitasuna kolokan jartzeko dago. Suposatzen da gure oso antzekoa denarekin identifikatu behar garela, eta soilik gozatu behar dugula irakurri dugun egilearen ideologia gurearekin bat datorren literaturaz. Nire ustez, benetan estimulagarria da kontrakoa gertatzen denean. Hala ere, egiari zor, emakumeek irakurtzen naute gehien bat; gehiengoak dira irakurketa klubetan eta kultura espazioetan. Oraindik ere nolabaiteko lubakia sumatzen dut gizonezkoen publikoan.

Anagrama argitaletxe handian publikatzen duzu. Esango nuke zubigintza lana egiten duzula diskurtso aktibisten eta jendarte zabalaren artean.

Ez dut modu kontzientean egiten, baina idazkeraren xede bat bada jasota uztea batzuk ez garela bizi izan arauaren arabera. Egia esan, nire liburuetan beti erre-

tratutzen dut nire bizitza bera baino, nire bizimodua egituratzen duen ehun diskurtzibo, afektibo eta ideologikoa.

Literatur kanon patriarkala kritikatu zenuen *Cambiar de idea*-n. Aipatzen zenuen argitaletxe askok emakumeen obrak argitaratzen dituztela soilik molde jakin batera egokitzen badira. Presio horretatik askatu al zara?

Oso presente dut pasarte hori. Umetan XIX. mendeko folletoiak maite nituen. *Madame Bovary* edo Tolstoi irakurtzen nituen eta trama erromantikoa bakarrik interesatzen zitzaidan. Gertatu zait maitasun nobela bat idatzi nahi izatea eta pentsatzea, emakume gaztea izanik, horrek prestigioa kenduko lidakeela.

Hala ere, nobela hau ez da batere kursia...

Ez? Nire erregistrorik kursiena da... [Barre egin du]. Konpentsazio-mekanismo moduko bat sumatzen dut neure baitan. Nire ilobak ondo deskribatzen du: "Zu kursia zara, baina beltzez jantzita".



Hitz egin dezagun maitasunaz. Salma eta Paul, Violetaren bikoteak, lanbide artistikoetan aritzen diren bitartean, gure protagonistak ez du halako bokaziorik. Agian gabezia horrek indartzen du bere dependentzia emozionala? Eleberrian iradokitzen da sozialki onartutako bi modu daudela hutsune hori betetzeko: amatasuna bata eta lanbide artistikoa bestea. Berak erabaki du ez dela ama izango, eta artearen bidez ere ez da betikotzen ari. Geratzen zaiona da maitasun istorioen idealizazioa, Disney baino, banpirikoak direnak: horiek betikotze aldera, bere nortasuna galduko du.

“ ”

***Ez naiz lorpenak
ospatzeko gai, eta
hutsegite txikiekin
zapuztu egiten naiz.
Banabil hori
aldatzeko lanean***

Hainbat harreman-eredu esperimentatzen jarri duzu Violeta, eta denak desidealizatu dituzu. Hori zen nire ideia: pertsonaiak, bere bilaketan, ikerketa ia enpirikoa egingo du, saiakuntza-erroreak, konturatu arte maitasun idealizatu posible bakarra Jainkoarenganakoa dela.

Spoiler: horrek ere ez dio funtzionatuko.

Beno, baina nire asmoa bazen iradokitzea soilik ez gorpuzdun izakiak idealiza daitezkeela horrenbeste. Uste dut gakoa ez dagoela harreman ereduaren. Zure bikote sexualak esplotatzen badiotuzu, berdin dio bat edo bost izatea. *Millenial* belaunaldikook uste genuen maitasunaren inguruko teoria jakin batek, akordio jakin batzuek, emantzipatuko gintuztela. Aitzitik, konturatu gara ondo dagoela aukera desberdinak pentsatzea, baina praktikan ez dagoela errezeta magikorik: harreman bakoitzak bere ituna aurkitu behar du, gor-

putzarekin aurkitu gainera.

Berritzailea egin zait liburuko maitasun istorio iraunkorrena lesbiana baten eta gay baten artekoa izatea.

Arestian kargu hartu didate nire bisexualitatea publikoki ikusgai ez egiteagatik, eta horrek oso deseroso sentiarazi ninduen. Ez nengoen prest, denbora asko eman baitut harreman heterosexual batean, eta nirea ez zen borroka batez jabetzen nintzela iruditzen zitzaidan. Denborarekin konturatzen zara baneratatutako bifobia dela hori, eta gizonekin nuen harremanean indarkeria espezifikoak pairatu ditudala bisexuala izateagatik. Horrekin jolastu nahi nuen.

Kanpotik interpreta daiteke Violetak bifobia baneratatuta duela, baina bortitza iruditzen zait Violetari zer izan behar duen esatea. Bestetik, oso dibertigarria iruditzen zitzaidan kontatzea Violeta eta Paulen arteko maitasuna hain dela handia, ezen identitate politikoetatik harago doala.

Edonola ere, iruditzen zait zure liburua erreferentzia baliotsua dela komunitate bisexualarentzat. Ekarpene hori egin nahi zenuen?

Dudarik gabe. Gogoan dut niretzat zein preziatua izan zen eleberri kuttun batean bisexualitatearen normalizazioarekin topo egitea. Illo horretatik, Sabina Urracaren *El celo* asko gustatzen zait, baina Alejandro Simon Partalen *La Parcela*-k bereziki liluratzen nau, orientazio sexualaren gaiari esplizituki heldu gabe, pertsonaia guztiek irekitasun hori dutelako. Kultura oso bat falta zaigu, erreferente positiboen tradizio bat, baneratatutako bifobia hori gainditzeko.

Salmaren pertsonaiaren bidez desidealizatu dituzu harreman lesbikoak.

Emakume bisexualok pentsa dezakegu harreman heteroetan dauden arazo guztiek bestearen maskulinotasunarekin zerikusia dutela; hori ironizatu nahi nuen. Orduan, hurrengo bikotea emakumea denean, ohartuko gara nartzisistak bilatzeko joera baldin badugu, patro hori mantenduko dugula, bikotekidearen generoa edozein dela ere. Hortaz, genero estereotipo bat erretratatzeko baino, mundu artistikoan eta literarioan asko ikusten dudan nartzisismo modu bat erretratatzeko interesatzen zitzaidan Salmaren bidez: dilema etikorik ez duen artista, inguruko pertsonaiei dena arpilatzen diena, baime-

nik eskatu gabe, artearen izenean.

Ez duzu uste azkenaldian etengabe eta arinkeria handiz erabiltzen dugula nartzisista etiketa?

Instagramen etengabe aipatzen dena “nortasun nartzisistaren nahasmendua” da, eta diagnostiko horren itemek ia beti tratatu txarrak ematen dituzten gizonak deskribatzen dituzte. Hortaz, iradokitzen dute gizon matxisten jokabidea arazo psikiatriko batek eragiten duela, eta ez patriarkatuak. Nik ez dut nartzisismoa horrela ulertzen, baizik eta nortasunez augarri baten moduan, harremanetan bereziki aktibatzen dena. Uste dut denok izan dezakegula bestea bitarteko gisa erabiltzeko joera, gure helburuak betetzeko, sotilki bada ere. Hala nola zenbait tokitara iristeko edo hutsuneak betetzeko. Horregatik diot banpiroaren mitoa erromantizatu dugula, nahiz eta nartzisismoaren definizioa izan: ez zaitut maite izaki autonomo gisa, baizik eta nire jabegoa edo nire gorputzaren zati bat zaren neurrian. Banpiroek drainatu egiten zaituzte, zure odola ematen dizute, eta orduan elkarrekin egongo zarete betiko.

“ ”

***Millenialok uste genuen
maitasun akordio
batzuek emantzipatuko
gintuztela, baina
konturatu gara
praktikan ez dagoela
errezeta magikorik***

Hitz egin dezagun espiritualtasunaz. Bilaketa desesperatu honetan, Violeta budismora edo santeriara bihur zenezake, baina erlijio katolikoa aukeratu duzu.

Ez nuen erori nahi protagonista turismoko espirituala egiten jartzeak dakarren exotizazio esparruan. Erronka bat iruditu zitzaidan arren, ikaskuntza-prozesu ederra bihurtu zen niretzat. Izan ere, Violetak bezala, nik ez dut inolako



erlijio-prestakuntzarik. Testu kristaue-tara hutsetik hurbildu nintzen, eta argi ikusi nuen ebanjelioak ezkerreko manifestuak direla modu jakin batean irakurri gero, eta balio ez duena ere alde batera utz dezakezula. Troiako zaldiak izan gaitezke: kuirrok katolizismoaz jabetzea inplosioa izango litzateke Elizarentzat eta oso irakurketa interesgarriak egin ditzakegu.

Asko gara espirituali umezurtz sentitzen garen agnostikoak...

Hutsune existentziala transkulturala eta transgenerazionala bada ere, egia da Jainkorik gabeko belaunaldi bat garela, eta eman dizkiguten alternatiba baka-rrak kontsumoa eta lana izan direla. Hala, lana identitario bihurtu behar dugu jasan ahal izateko, edo gure denbora oparitu gustuko ez dugun jarduera bati, kontsumitzeko diruaren truke. Horregatik ga-biltza terapia eta erretiro bila, nolabaiteko transzendentzia bila.

Violetak ezkerreko utopietako bat ere probatzen du: hiritik landa eremura joatea, lagunekin bizitzera.

Nork ez du horrekin amets egin? Nire lagun batek esan dit tristea iruditzen zaiola eleberrian bake eta maitasun perfektuko uneek hain gutxi irautea. Baina ez nituen idealizatu nahi oraingoz oso bideragarriak ez diren aukerak. Komunitate batek funtzionatzeko, ondo konektatutako sa-reak behar dira landa eremuan.

Ibilbide oparoa duzu. Nola sentitzen zara zure lehen obrekiko? Esango zenuke bibliografia koherentea sortu duzula?

Ez dut atzera begiratzen. Lotsa handia ematen dit idatzitakoak, dena zuzentzeko bultzakada eragiten didan hiperperfekzionismoagatik eta ez dakidalako zer aurkituko dudan iragana berrikusten badut. Esango nuke *Cambiar de idea*-tik hona oso ildo koherentea dagoela: errepikatzen da ondoez psikikoen inguruko

obsesioa –ez zait gustatzen “gaixotasun mentalaz” hitz egitea– eta identitatearen ideiarengatik. Hori baino lehen... Ez dakit nor nintzen ere 20 urterekin! Oso gazte hasi nintzen argitaratzen, gazteegi nire ustez. Horregatik ia ez naiz sentitzen nire lan goiztiarrenen egile.

Nola sentitu zinen Euskadi Literatura Saria jaso zenuenean, 2020an?

Izugarri ondo, nire etxea erosi nuelako! Hori da sariaren alderik garrantzitsuenak: idazten jarraitzeko baldintza materialak ematen dizkigutela. Oso itota nengoen orduan, nire alaba txikiarekin aitariaren herriko etxean bizitzen, eta joan egin behar genuen... Diru hori sartzen ez bazen, ez nuen aurrera egiteko modurik.

Zer moduz bizi duzu arrakasta?

Genero-markatzaile argi batekin: merezimendu-arazoak dituen emakume bat naiz. Ez naiz lorpenak ospatzeko gai, eta hutsegite txikiarekin zapuztu egiten naiz. Banabil hori aldatzeko lanean. Bost urterekin galdetzen zidatenean ea zer izan nahi nuen handitan, idazle erantzuten nuen. Ametsa bizitzen ari naiz: pribilegio handia da dirua irabaztea nire esperientzia prozesatzeko modu bat den zerbait eginez. Halaber, primerakoa da bozgorailu bat izatea, zerbait esan nahi duzunean jendeak entzungo zaituela jakitea.

Katixa Agirreren Berriz zentauro itzuli duzu gaztelaniara. Gustatu zaizu itzultzaile lana?


Ederra izan da. Katixa oso lagun ona dut, eta pribilegioa da hain ondo ezagutzen duzun norbait itzultzea. Oso umore garratza du, une batzuetan pentsatzen nuen "hau nola esango zuen Katixak?", eta itzulpen apur bat desberdina egiten nuen bere esentzia mantentzeko.

Bilbotarra zaren arren, Laredon (Kantabria) bizi zara aspalditik. Hurbildu al zaitu esperientzia horrek euskarazko literaturara?

Lotura handia galdu dut Euskal Herriarekin eta hizkuntzarekin, eta horrek garai batean erru handia eragiten zidan. Euskaraz irakurtzen dut, Eider Rodriguez nire idazlerik gogokoenetakoa da, baina oso baldar sentitzen naiz hitz egiterakoan, lotsatu egiten naiz [elkarrizketa gaztelaniaz egin dugu]. Aitzitik, bitxia egin zait jabetzea jariatasun handiz itzultzen dudala euskaratik: Horrek frogatzen du, blokeoa hor badago ere, euskara ere nire hizkuntza dela. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Ufa eginez jaurtitzen den aire. | Kirol lasterketa. **2.** Zinema. | Noraino atzikia. **3. Argazkiko mendia.** **4.** Zirrara. **5.** Zaldiak gidatzeko erabiltzen den uhal multzo. | Irastor. **6.** Hildako pertsona baten agerraldi. | Edeneko. **7.** Ezartzeko ekingintza. | Zur, harri edo metalen bati forma ematen. **8.** Paseko txoria, gaina iluna, azpia zuria, isatsa sarde modukoa eta hegoak meharrek eta luzeak dituen. | Altuera.


GOITIK BEHERA:

1. Gogo bizia, irrika. | Lurraren azala osatzen duen gai ez organikoa. **2.** Haizeaz mintzatuz, hotz. | Handituz joan. **3.** Igarri, nabaritu. **4.** Kexatzea, kexua. **5.** Nahastura trinko. | Praseodimioaren ikurra. **6.** Kontsonante errepikatua. | Azpia. **7.** Kataluniako herritar. **8.** Riadeko herritar. **9.** Zintzo. | Laua, xumea. **10.** Diru. | Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakin bakoitza. **11.** Bakoitza bi. **12.** Idiari, atzera! **13.** Uretako kiroletan, joan etorriko ibilbide bat banatzen den zati zuzenetako bakoitza. **14.** Ahuntzaren ar. **15.** Piraten edaria.

Sudoku




ZAILA



Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Azkoitiako abeslaria

Atarte, atalase

Kantore

Hamar dezilitro

Erabat, zeharo

Eder, soutil

Zintzo, jator

Harrizko aztarna

Kalte

Janariak prestatu

Jateko beharra

Itsas ur

Kodainak

ANARI

EBAZPENAK

ERRAZA

11. BINA, 12. ESTI, 13. LUZE, 14. AKER, 15. ROMA, KATALAN, 8. RIXADUR, 9. ON, 14. PA, 10. SOS, ADAR, ANTINMAN, 4. KEADUR, 5. ORE, 16. RRR, 17. A.

GOTIK BEHERA

1. UZIA, MEA, 2. FIN, HAZI, 3. AINRA, GARAIARA.

6. MAMU, PARADISUKO, 7. EZARPEN, LANTZEN, 8. 3. INTORRA, 4. ZARADRA, 5. HED, LAINE, RAINO, 3. INTORRA, 4. ZARADRA, 5. HED, LAINE, RAINO.

ESKER-ESKURI

1. UJKO, KROS, 2. NINE, RAINO, 3. INTORRA, 4. ZARADRA, 5. HED, LAINE, RAINO.



Des(eroso)

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

Oilo familiak ez du ulu egiten duen oilarra oilategian nahi; nahasi egiten ditu, deseroso sentiara-zi, zalantza sortu eta ezinegonak ekarri. Kaiolak puskatzeko ahalegina egin duen bakararra izan den arren, kondenatu egiten dute, baina dena ondo dago.

Oilategian aurkezten dizkigu Atx Teatroak obra honen esanahi guztiak. Protagonistak kaiolatan bizi dira, besoak eta hankak zabaltzen uzten ez dien gelatxoetan. Ez daude eroso eta kexu dira, baina beldurak paralizatuta ditu. Amak isiltzera behartzen ditu eta dena ondo dagoela errepikatzen die behin eta berriz. Beldurak paralizatuta ditu. Badakite kanpoan beste zerbait dagoela, badela bide hoberik, ulu egiten duen horrek jarraitu zuena, esaterako, baina beldurak paralizatuta ditu. Nahiago antsiolitikoak hartu. Eta bitartean, ahaleginak egiten dituzte

deserosotasuna eroso bilakatzeko eta sinetsi egiten dute hala bizi direla eta euren etxe hori defendatu behar dutela, gainera.

Hitz egin dezagun, beraz, oiloen hizkeran. Gizakiaren eta gizartearen ezauzgarri, akats eta aukerei buruz hitz egiteko animaliak eta kontzeptu abstraktoak erabiltzea erabaki ausarta bezain ederra iruditu zait. “Gizakia zer astakeria egiteko kapaz da bildurragaitik? Edota zer ez dau sekula egingo?”, diote sinopsian. Iritzi publikoak, galerak, epaiak, errepresioak edo zigorrak izan daitezke gizakion munduan paralizatzaileak; eta marmarrak entzuten dituen eta mar-mar dabilen giza taldea protagonista, konformatzea eta normalizatzea aukeratzen duena, eta kaiola askatzaile bilakatzen duena. Horrela bada, pertsonifikazioak garrantzi handia izango du eta kritikarako espazioa zabaltzeaz gain, gorputz espresioari eman dio inda-

rra eta erabilitako baliabideek izugarri jantzi dute lana: eurek eraikitako estruktura bertikal mugikorra, kulunkaria, urez betetako kaxoi transparente bat, maskarak, kantua... Eta guztia janzten duen argiztapena; mundu ilun, misteriotsu eta arraro batera garamatzana eta, zinez, erakargarria.

Atx teatroak badu nigan obra hasi aurretik zirraraz sortzeko gaitasuna. Estetika punki eta poetikoaren fusioa interesgarria zait eta, batik bat, hori horrela izateko hau-tuak. Antzerki talde horrek izaera propioa du eta arkatzek beti dute punta zorroz-tuta. Agian inor geldituko da oilategian edo inor ausartuko da ulu egitera. Agian soilik otso izan nahi duenak ikusiko du obraren argia eta ulertuko du ulu egiten duena akabatuta ere baratze bat egingo dizuela. Ba ote bizi osoa esklabu bizitzea baino gauza beldurgarriagorik? ●

MARMARRA

DRAMATURGIA: Jon Gerediaga/Atx Teatroa

ZUZENDARITZA: Atx Teatroa

AKTOREAK: Alazne Astorga, Aiora Sedano, Aitor Etxarte, Estibaliz Villa, Garazi Etxaburu, Mirian K. Martxante, Sandra Fdz. Agirre, Sandra Tejero


NOIZ: Uztailaren 4an

NON: Lekeitioko plazan



LIBURUA

Bizitzaz eta beste



WIKIPEDIA

ANATOMIA BERTIKALAK

LIERNI AZKARGORTA

BALEA ZURIA, 2025

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lierni Azkargortak *Anatomia Bertikalak* liburuaren aurkezpen saioan esan eta *Berria* egunkariak jaso moduan irakurri ditut poema gehienak: ozen, ahoz gora, erreztatuz bezala. Ohiko praktika da poesia irakurtzen dudana aldiro, Josune Muñoz entzun eta nik ere errepiakatzen dudana aholku bat baita. Eta asko eskertzen da Azkargortaren poemek duten soinua, musikaltasuna, tonua eta erritmoa markatzen laguntzen duelako.

Liburua lau ataletan banatuta dago eta izenburu guztien protagonista da hiria hitza, hiria kontzeptua: *Lo-hiria* da lehenengo kapitulua eta bihotza eta ilargia, gaua, loa dira atal honetako protagonistak. *Hiri satelitea* da burua edo garuna, bi hemisferiotan banatua. *Lorategi hiriak* birrikara garamatza, arnaserak eta horretarako hain beharrezkoak diren loreen izenak eta poe-

mek osatzen dute atal hau: lore zitrikoek, jasminak, algek, eguzkiloreek eta beste. Laugarrenak, *Hiri santuak*, aortari, giza-kion arteria nagusiari, egiten dio erreferentzia eta hemen dira aldarea, fedea, jainkoa, espiritualitatea. Poema luzeak dira oro har, irakurketa bat baino gehiago eskatzen dutenak. Gainera, liburuan zehar irudi bi aurkituko ditugu, idazleak berak eginak. Poemetan irakurritako elementu, irudi, sinboloak jaso eta laburtzen dituztenak.

Bizirik eta gaixo edo bizirik baina gaixo dagoen ni poetikoaren ahotsak mina du hizpide, *"Mina. Min industrial"* (23. orrialdea), liburu guztian zehar. Gaixorik egotearen zaurgarritasunak sortzen dituen galderak *"Zer egin, bizitzeko behar dudana argiak sortzen badu, / ehizatu nahi dudana minaren / itzal txinatarrak"*, edo *"minak*

zer nolako forma hartzen duen / ematen zaionarena?" (63. orrialdea), bakardade sententzia eta heriotzaren gertutasunak markatzen dute tonua: zalantzia, beldurtua eta itxaropentsua aldika. Bertikalean, goitik behera eraiki dugun mundu honetan oheko horizontalitatea behar duen gorputzaren ahotsa ere kexu ageri da *Lo-karturiko eguzki loreak (paradigma berria)* poeman adibidez: *"Zainetan odola dugula ahaztuko zaigu / eta damutzeko muturregi izango da"*.

Humanoa eta inteligentzia artifiziala, natura(la) eta artifizioa, zientzia eta espiritualitatearen arteko tentsioak erakusten ditu liburuak, aldi berean bata eta bestearen arteko jarraikortasuna erakutsita. Heriotza bizitzaren segida besterik ez den bezala baitira bata eta beste gauza beraren alde bi. ●



MUSIKA

Kilate askoko abesbatza



FUNDACIÓ SANTANDER CREATIVA

FITXA

LE CONCERT DES NATIONS
LA CAPELLA NACIONAL
DE CATALUNYA ORKESTRA
SINFONIKOA

ZUZENDARIA: Jordi Savall
ABESBATZEN PRESTAKETA:

Lluís Vilamajó

EGITARAUA:

Mendelssohnen lanak

NOIZ: Abuztuaren 22an

NON: Kursaal auditorioan
(Donostiako Musika
Hamabostaldia)

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Jordi Savall nazioartean izen handia duen musikaria da eta Euskal Herrian oso maitatua. Izan ere, askotan bisitatu gaitu, bai bere taldeak zuzentzen, bai bere ganba-biola joaz errezitaldiak egiten.

Baina hain ohikoa ez dena da antzina-ko musikaren erreperertoriotik ateratzea musika erromantikokoan murgiltzeko, kasu honetan bezala. Izan ere, Savallek, bere bi talde bikainekin batera, Le concert des nations orkestra eta La capella nacional de Catalunya abesbatza, Mendelssohnen programa monografiko bat ekarri zigun.

Emaizta, batzuentzat bikaina izan zen, baina nire ustez ez zen izan Mendelssohnen obregandik espero nuena.

Mendelssohnen 3. sinfonia, la minorekoa, op. 56 Eskoziarra lan ederrarekin hasi ziren. Obra honen inspirazioa lehen erromantikoen irudimenaren obsesio handienetako batean datza: Eskoziako

laino grisak eta mendiak. Bestalde, obrak, formaren argitasun eta orekari uko egin gabe, kutsu berritzailea eta gaien aberastasuna ditu, eta horrek izugarri erakargarri egiten du.

Egia da, halaber, obraren sonoritateak orkestra moderno baten zehaztasuna eta bolumena eskatzen dizkigula, edo niri behintzat eskatzen dizkidala. Le concert des nations orkestraren instrumentuak garaiko instrumentuen erreplikak dira, eta ez dute erreperertorio mota honetan behar den efektua lortzen.

Savallek obraren irakurketa adimentsua egin zuen, temak eta lerroak trebeziaz landu zituen, baina agian hau ez da erreperertorio egokiena formazio honetarako. Halere, hori gustu kontua da.

Hori bai, bigarren zatia opari bat izan zen. *Die erste Walpurgisnacht* (Walpurgisen lehen gaua) op. 60, konpositore berarenak, harri eta zur utzi gintuen guz-

tiok La capella nacional de Catalunya-ko emakumeen atala abesten hasi zirenean. Korua bera zoragarria da, enpastatua, afinatua, ñabarduraz josia, oso zaindua; eta bere sekzio femeninoa paregabea da.

Hasi zenetik, Goetheren olerki batean oinarritutako lan eder hau oso arin joan zen. Savallek oreka bikaina lortu zuen ahotsen eta orkestraren artean, eta benetan ordu erdiko gozamina izan zen.

Bakarlariei dagokienez, ez zen homogeneotasun handirik egon. Ilker Arcayürek tenore turkiarrak ahots polita du, baina gau horretan ez zuen maila eman. Arazoak izan zituen agudoekin, eta ez zegoen gustura bere paperean. Sara Mingardo mezzoak egoera salbatu zuen distira handirik gabe. Une interesgarrienak baritonoenak izan ziren: bai Matthias Wincklerrek bai Arttu Katajak beren rolak trebetasunez eta ahots emisio oso on batekin egiten jakin zuten. ●

Bukatu da euskal oasia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bai lagunok, bukatu da, akabo, fini, kaput. Euskal oasiarenak egin du. Jarri pelikularen amaierako kredituak, ez dago fartsa honi gehiago eusterik. Agerikoegia bihurtu da, ukondoarekin ere ikusi liteke. Funtzionatu zuen bolada batez, ez dut ezetz esango; desberdinak ginela uste izan genuen, arrosa kolorez jantzia genekusan gure zera guztia, “hemen baino hobeto non ba?” esaten genion gure buruari. Baina errealtatea –tirano arrotz ezin ohilduzko hori– etorri zaigu belarrondoko bortitz batekin ametsik ederrenetik iratzarraraztera. Bukatu da inoiz benetan existitu den euskal oasi bakarra: amaitu dira oporrak.

Lanera eramango gaituen autobusean, sarreran fitxatzean, makinako kafearen kondarretan etorkizun hobe baten aukera irakurtzen saiatzean; eta enplegu-bulego hitsetan txandaren zain gaudeanean, haurrak eskolara presaka eraman beharrez oinarritzko printzipio pedagogiko guztiak zakarretara botatzean, klase-ordu asperramorranteen pairamen eternalean; eta lagunak kriptotetan inbertitzeari buruz hizketan hasten direnean, lehenbiziko euriekin zapataren zolak zuloa daukala konturatzean, udan kanpinean ateratako argazkiari begira malko bat isurtzean, munduko beste edozein lekutan bezain dohakabeak izango gara hemendik au-

rrera –tira, horrek ere ñabardurak eskatzen ditu, kontuan izanda munduko leku gehienetan panorama dezente txungoagoa dela, baina ulertzen didazue–.

Bukatu da, beraz, euskal oasia. Alegia, bukatu da *berriz*. Eta espero dut oraingo honetan behin betikoa izango dela, ze badauka oporren amaiera honek gainontzeko kalte guztien aldean txikia dirudien arren, niri behintzat kopeta lainotzen didan beste gauza bat: osteria ere alerterta egoeran sartu garela, Euskal Herriko problemei buruz idazten hastean artikulugileei inork ez baitie frenorik jarriko teklatuan. Eta ditxosozko oasia aipatzen hasiko dira denboraldi honetan ere, noski. “Bukatu da euskal oasia”, jar dezakezu titularrean, hemengo ustelkeria kasuei buruz hitz egiteko; edo hezkuntza publikoaren arazoez; edo EAJ-PSEren *entente cordiale*-ak arrakalak dauzkala esateko; edo euskaldunak arrazakeriatik libre ez gaudela seinaltatzeko. Pentsatzen jarrita, Realaren denboraldi hasierarentzat ere baliagarria suerta liteke honezkero.

Izango dira, nik zer dakit, hamar bat urte gutxienez euskal oasiaren amaiera iragartzen dela ezkerreko, eskuineko eta zentro komertzialeko medioetan. Kontzeptua zirkulazioan jarri zenetik, alegia. Orduan, bitako bat: ez zen inoiz existitu; edo Jacques Derridak *La Dissémination*-en iradokitako bidetik, oasiaren ukazioa bera bilakatu da haren existentzia defendatzeko modu bat. Hirugarren aukera ere hor dago, prosaikoagoa segur aski –baina badakizue hemen gauzen esplikazio prosaikoaren alde lerratzeko joera dugula–, alegia, “euskal oasia” klise huts bat bilakatu dela, ziztri-miztri samar geratzen ari den edozein testuri planta pixka bat emateko balio duena. Klisea, ordea, txiklearen oso antzekoa da –eta ez bakarrik fonetikan–: behar ez den lekuan pegatuta geratzen bada, ez dago askatzeko modu zibilizaturik.

Bale, hemen ere arazoak dauzkagula. Euskal Herria ez dela oasia. Esan dugu. Behin, bitan, hiru milioi alditan. Nekatuta egon behar du dagoeneko eta utz deza-

kegu pixka batean ideia hori lasai egoten, aldiro bolbora asmatzen ariko bagina bezala kontuarekin atzera mailuka hasi beharrean. Gainontzean itxura tamalgarria emango baitugu munduaren aurrean: beste jende gehienek ere badauzkaten problemak edukitzeagatik etengabe harritzen ari den probintziano kuadrilla batena. ●



Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa



Erraldoi eta buruhandien karta jokoa

Familien karta jokoa eta Memoria jokoa.

*Euskal Herri guztitik etorritako erraldoi eta buruhandiak protagonista:
Erraldoi kirolariak, Sanferminetakoak, mitologikoak, ipuinetakoak...*

Prezioa **12€**

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

 **ARGIA**